

# IKERKETA

Emakumeen parte-hartzea  
memoriaren eraikuntzan, Euskadiko  
eta Guatemalako esperientziak.

2024ko Urtarrila

Egilea: JONE OTERO MARTINEZ

[www.borborka.com](http://www.borborka.com)



baketik



borborka



LANKIDETZARAKO ETA  
ELKARTASUNERAKO  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN Y  
SOLIDARIDAD



bak**etik**



**borborka**



LANKIDETZARAKO ETA  
ELKARTASUNERAKO  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACION Y  
SOLIDARIDAD

# Aurkibidea

## 1. ATALA: EZAGUTZEN DUGUNA

<b>3 rolak</b> .....	9
Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeak .....	10
Sexu-indarkeria .....	10
Nazioarteko zuzenbidea .....	11
Erronka .....	12
Emakume bakezaleak .....	13
Estigma hausten .....	14
1325. ebazpena .....	15
Emakume borrokalariak .....	16
Indar armatuak eta borroka-unitatea .....	17
Askapen-mugimenduak eta gerrillak .....	18
Arma hartzeko arrazoiak .....	18
Prozesu ahalduntzailea? .....	18
<b>Gatazkari buruzko oharrak</b> .....	19
Azterketarako emakumeak .....	21
Guatemalako kasua .....	21
Euskal Herriko kasua .....	23
<b>Nork kontatzen du historia?</b> .....	27
Emakumeen ezabaketa .....	28
<b>Helburuak</b> .....	29
<b>Metodologia</b> .....	31

## 2. ATALA

<b>Isiltasuna</b> .....	35
Lehen isiltasuna .....	36
<b>Min gurutzatuak</b> .....	37
Lourdesen historia .....	37
Belaunaldi arteko mina .....	38

<b>Nor naizen</b> .....	39
Zein da Itxaso? .....	39
Aurrera egiteko kokatzea .....	40
<b>Gizonen luzapena</b> .....	41
Egun bera .....	41
Bizirik dirautenak .....	43
<b>Sexu-indarkeria globala</b> .....	45
<b>Hau ez da gure bakea</b> .....	47
Gatazka ikusezina .....	49
<b>Emakumeak, gatazkak eta rolen konplexutasuna</b> .....	51
Amak .....	51
Babesleak .....	51
Semeak eskaintzea: borrokagatik edo babesagatik pairakorrak .....	51
Dena erortzen denean: sostengatzaileak .....	52
Urratsak etxetik kanpo .....	53
Ekintza ideologian .....	53
Indarkeriaren erabilerarekiko harremana .....	53
Gatazkan esnatzea .....	54
Partaidetza politikoa eta espazio publikoaren okupazioa .....	55
Zerbitzariak .....	56
<b>Nire erabakia da</b> .....	57
Beldurrez, baina egin egiten da .....	58
<b>Nola eraikitzen da etorkizuna?</b> .....	59
Emakumeak eraikitzen ari diren bakea .....	59
<b>Zer esan nahi diezu antzeko egoeretan dauden beste emakume batzuei?</b> .....	63
<b>Ondorioak</b> .....	65
<b>Bibliografia</b> .....	67

# Sarrera

Memoria errealtate bat da, batzuetan hurbilagoa, batzuetan urrunagoa, baina sarritan, modu batean edo bestean, presente dagoena.

Argitalpen berri hau komunitate gisa markatu gaituzten uneetako protagonistetako batzuen memoriaren narratibetan barneratzen da. Markak, Elizabeth Jelin egile ospetsuak askotan erabilitako hitz hori, egon badaude eta munduko gizarte guztietan presente dauden markak dira. Eta gizarte gehien-gehienetan, memoriaren eta marka horien inguruan behar den guztia eraiki eta berreraiki ahal izateko bideak bilatzen dira.

Hori jakinda, Mugen Gainetik eta Baketik erakundeok bide bati ekitea erabaki genuen, munduaren luze-zabaletara, bai Euskal Herrian bai Latinoamerikan, zenbait pertsonak baina batez ere emakume askok giza eskubideen urraketa ikusgai egiteko eta bide eta zubi berriak eraikitzeko topaketa-moduak bultzatu dituztela ezagutarazteko.

Kolonbiako Konpontzeko eta Adiskidetzeko Batzorde Nazionalako Memoria Historikoko Taldeak La memoria histórica ikerketan agerian jartzen duenez, genero-ikuspegitik memoria barneratzaile bat eraikitzeko ezinbestekoa da gertaera historikoei emakumeen gorputzetan eta bizitzetan utzi dituzten aztarnak biltzea ahalbidetzen duen genero-begirada bat erabiltzea eta, horrela, emakumeek bakegintzan dituzten eskubide zehatzei buruzko diskurtso bat lantzea.

Eta helburu hori ezin da lortu emakumeek gatazkaren ondorengo berreraikuntza-prozesuetan parte hartu gabe. Emakume akademikoek, baina aktibistek edo soilki bizirik dirauten emakumeek ere, beren ezagutzak eta esperientziak komunikatzeko aukera eduki behar dute gertatutakoari buruzko ikuspegi askoz ere zabalagoa eratzeko.

Ez da nahikoa iritzi publikoak jatorri politikoko gatazka armatu baten esparruan emakumeek pairatu dituzten urraketen berri izatea, haien berri izaten baldin badute.

Hildakoen edo desagertutakoen alargunen, amen, alaben edo arreben sufrimenduari buruz, nahitaezko lekualdaketei buruz, ondare-galerari eta lurralde-galerari buruz, bortxaketa eta iseka fisikoei buruz, protestatzen duten edo beren burua defendatzen duten emakumeen aurkako mehatxuei eta hilketei buruz, nahita zein halabeharrez talde armatuetako kide direnen esperientziei buruz eta hurrengo emakume-belaunaldien galerari eta isiltasunari buruz dagoen ezagutza ezin da aurkeztu testuingurutik ateratako begirada idealizatu batekin, zeinak gatazka armatuaren, generoaren eta emakumeen historien arteko harreman pasibo eta apolitiko batean oinarrituta emakumei buruzko estereotipoak elikatzeko balio baitu eta emakumeen eta pasibotasun eta mendekotasunaren artean dagoen lotura indartzen baitu.

Beraz, emakumeen esperientziak integratzen dituen memoria bat eraikitzeko bidea ematen digun begirada sakonago bat azpimarratuz kontatu behar ditugu gertatu diren egitateak.

Bestalde, Mugen Gainetik eta Baketik erakundeen eta geure nortasunen arteko elkarlanak Amerikan eta Euskadin errealtate eta gatazka heterogeneoei begiratzera animatzen gaitu.

Kolonbia, El Salvador, Guatemala eta Euskal Herria dira «Memoria, ikuspegi feminista lokal-global batetik, bizikidetzak baketsua eraikitzeko tresna gisa» izena duen eta Lankidetzak Euskal Agentziaren finantzaketari esker 2023 eta 2024ean egiten ari garen proiektuaren oinarria diren emakume aktibisten herrialdeak.

Proiektu honen esparruan, lehenago aipatu ditugun emakumei entzuteko eta beraiek parte hartzeko premisetan oinarrituta, emakumeek gatazka-testuinguruetan daukaten zeregin aktiboa (edo, hobeto

esanda, dauzkaten zeregin aktiboak) aintzatesteko eta testuinguru horietan pairatzen dituzten berariazko indarkeriak aitortzeko bideak bilatzen ditugu, gogoeta-taldeak bultzatuz eta askotariko ahotsak eta esperientziak dituzten baina bidegabekeriei eta giza eskubideen urraketek berdin aurre egin dieten eta beste errealitate bat eraikitzeko berdin lan egin duten emakumeak bilduz.

Horrela, giza eskubideen defendatzaileak diren aktibista euskaldunak eta latinoamerikarrak ditugu, gatazken eraldaketan aktiboki inplikatur daudenak eta beren burua aurkitzeko eta haien gizarteek jasan dituzten indarkeriak direla-eta zer zeregin bete zuten baloratzeko aukera izaten ari direnak.

Irakurketak askotarikoak izan ohi dira, Guatemalan eta Euskal Herrian, hots, hemen aurkezten ari garen argitalpenaren bi fokuetan, oso testuinguru desberdinak egon daitezkeelako. Hala ere, hurrengo orrietan beste zerbait jartzen da agerian: arretaz entzuten dugunean topaguneak sortzen direla, hurbilak eta komunak diren hautemateko moduak.

Elkarrekin dutena da emakumeen ahotsak ez direla beti entzunak izan: gatazkaren ondorengo eraikuntzan eta berreraikuntzan ezinbesteko pertsonak eta eragileak diren arren, ez da beti sortzen emakumeek benetan parte hartu ahal izateko espaziorik, non berariazko genero-begirada sartuta dagoen. Are gehiago, sarritan, emakumeek berek, historien protagonistek, ezin izan dute sortu ez denborarik ez tokirik hausnartzeko eta benetan aktibistak izan ote ziren edo eraikitzeko haien modua nolakoa izan zen baloratzeko. Proiektu honek haien aktibismo-dinamikak nolakoak diren ikasteko aukera ere eman digu.

Aurkezten ari garen lan hau memoriaren eta gatazkaren ondorengo eraikuntzaren esparruko argitalpen ugarietako beste bat da, giza eskubideen defentsaren alde borrokatu ziren gizarte-eragileetan, pertsonengan, jartzen duena arreta. Mugen Gaietik eta Baketik erakundeok ziur gaude elkar entzuteko eta hitz egiteko, beren pentsamendu eta ekintzekin gaur garen gizartea eraiki duen hainbeste jenderen historiak, narratibak eta bizitzak biltzeko aukera gehiago eta gehiago bultzatzen jarraitu behar dugula.

Askotan, historia eta memoria eraikitzen eta emakumez hitz egiten jarraitzen dugu, baina ez diegu protagonistei berei entzuten. Análisi askok rol eta leku jakin batzuetan sailkatzen dituzte emakumeak oraindik ere. Genero-begiradak mundu osoko memorien eraikuntzatik kanpo jarraitzen du. Guk hori onartu nahi dugu eta egiteke dagoen guztia ikasten joateko agertoki berriak proposatu nahi ditugu.

Bestela ezin izan zitekeenez, gure azken hitzek eta, hortaz, hitz nabarienek, argitalpen honi beren ahotsak eskaintzea erabaki duten emakume guztiei eskerrak emateko izan behar dute: elkarrizketa sakonen bidez, lan honetako protagonistek gaia hobeto ezagutzea, mezu bat egituratzea eta lan hau eraikitzea ahalbidetu digute. Eskerrik asko Euskal Herrian, Guatemalan eta horietatik haraindi giza eskubideak defendatzen dituzten emakume guztiei, argitalpen berri honetan —heine batean bakarrik— biltzen den borroka guztiagatik.

Mugen Gaietik eta Baketik, 2024ko otsaila



## 1. ATALA

# BADAKIGUNA

Azterketa honen asmoa da emakumeek gatazka-  
testuinguruetan daukaten zeregin aktiboa (edo, hobeto  
esanda, daukaten zeregin aktiboak) aintzatestea eta  
testuinguru horietan pairatzen dituzten berariazko  
indarkeriak aitortzea.





# 3 rolak

Urteetan zehar, **emakumeei ez zaie aintzat hartu gatazka armatuetan aktiboki parte hartzeko duten gaitasuna**. Isiltze horretaz gain, emakumeek egoera horien **ondoriorik txarrenak pairatu dituzte** orobat. Sistema patriarkal batean eraiki diren ikuspegi esentzialistak eta begirada estereotipatuak gainditzeko ahaleginetan, atal honetan emakumeek historian zehar gutxienez bete dituzten roletako 3 jasotzen dira: sexu indarkeriaren biktimak, bakezaleak eta borrokalariak.

Jakina, errealitateak aukera-sorta hori gainditzen du eta Iker Zirion Landaluzek gatazka armatuei buruz dioen moduan:

«[...] emakumeek oso askotariko zereginak betetzea ahalbidetzen dute [...], besteak beste, borrokalariak, gerrako alargunak, espioiak, gerraren aurkako eta adiskidetzearen aldeko erakundeetako kideak, gerra-arma gisa erabilia izan ohi den sexu-indarkeriaren helburu, borrokalarien emazteak, GKEetako langileak, landa-eremuetako komunitateen barruko emakumeak, sexu-esklaboak, hirian gatazkatik urrun bizi diren emakumeak eta abar<sup>1</sup>».

Horrek orobat esan nahi du testuinguru horiek batzuetan **genero-rolen haustura** dakartela, zeren emakume askok lehen gizonentzat bakarrik erreserbatuta zeuden jokabideak berenganatzen baitituzte azkenean. Paradoxikoki, Carolina Jiménez Sánchezen hitzetan, prozesu horiek emakume batzuei «*emantzipatzeko eta kontzientzia soziala hartzeko aukera ematen diete, interes jakin batzuen alde borrokatzen den komunitate baten parte direla sentitzen baitute*».<sup>2</sup>

Oraingoz eta azterketa honen esparrua mugatzeko, jarraian aipatutako 3 rolak aurkeztuko dira.

---

1 IKER ZIRION LANDALUZE (2012): *Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género*. 18. orrialdea.

2 CAROLINA JIMÉNEZ SÁNCHEZ (2015): *Las mujeres en los conflictos armados: conflicto, proceso de paz y posconflicto*. Página 235

# Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeak

## SEXU-INDARKERIA

Gatazka armatuetan eta etsai-giroko testuinguruetan, emakumeen kontrako indarkeria areagotu egiten da eta biktima nagusi bihurtzen ditu. Munduko leku guztietako urteetako historiak, gerrek eta ezegonkortasun politikoak erakutsi dute gizonek behin eta berriro erabiltzen dutela emakumeen eta nesken aurkako **sexu-indarkeria**. Teorialari feminista anitzek adierazi dute patriarkatuaren kontrol-adierazpenetatik muturrekoena dela sexu-indarkeria<sup>3</sup>; alegia, **emakumeen gorputza gudu-zelai** bihurtzen duen **gerra-arma**<sup>4</sup> gisa eta **botere-tresna**<sup>5</sup> gisa erabiltzen da sexu-indarkeria.

«[...] Gerrak emakumeenganako mespretxua askatzeko oinarri psikologikoa ematen die gizonei»

1993an Antonia Castañeda feminista txikanoak<sup>6</sup> egungo Kalifornian XVIII. eta XIX. mendeetan emakume indigenen aurka erabili zen bortxaketa masiboa aztertu zuen, monarkia hispanikoaren konkista militarrek horrela lurren eta gorputzen gaineko nagusitasuna berretsi nahi zuela frogatzeko.

2005ean, Andrea Smith feministak baieztatu zuen<sup>7</sup> Ipar Amerikako emakume indigenen bortxaketa masiboa izan zela kolono zuriek bertakoen lurra bortxagarria zelako sinesmena praktikan jarri zuten modua.

Bosniako gerran, armada eta paramilitar serbiarrek milaka emakume bosniar musulman bortxatu zituzten (12.000, NBERen datuen arabera). Argitalpen batzuek «bortxaketa-esparruak» aipatzen dituzte, zeinek garbiketa etnikoa baitzuten helburu, bortxatutako emakumeen derrigortutako haurdunaldiaren bidez.<sup>8</sup>

3 Irantzu Mendia Azkue, 11. orrialdea.

4 GUADALUPE CAVERO MARTÍNEZ (2021). *Las mujeres en los conflictos y postconflictos armados: la resolución 1325 de la ONU y su vigencia hoy* (17. or). Hemen eskuragarri: <https://www.inmujeres.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/documentos/DE1865.pdf>

5 Carolina Jiménez Sánchez. 82. orrialdea.

6 *Sexual Violence in the Politics and Policies of Conquest* saiakeran.

7 *Conquest: Sexual Violence and American Indian Genocide* saiakeran.

8 *El libro del feminismo* (2020). Akal producciones. 279. orrialdea.

**Emakume eta neska errefuxiatuek** ere pairatzen dute sexu-indarkeria. Carolina Jiménez Sánchezen arabera, haien egoera deskribatzeko «*aterperik gabeko errefuxiatuak*» direla esan liteke. Gaur egun, oraindik ere, kanpamentuetako emakumeek bortxaketak pairatu ohi dituzte, gehienetan **beren “gizarte-talde” bereko gizonen aldetik** [...]»<sup>9</sup>.

## **Arauren salbuespena: emakume sahararrak**<sup>10</sup>



1975ean, Saharako biztanleria zibila Tindufen ezarri zen gatazka armatutik babesa hartzeko. Kokagunea emakumeek sortu zuten batez ere eta emakumez, zaharrez eta hurrez osatuta dago nagusiki. Emakume Sahararren Batasun Nazionala (UNMS) kanpamentuak egituratzeaz arduratzen da, alfabetatze-tasak handituz, eskura dauzkaten baliabideekin osasuna (ugalketa-osasuna barne) sustatuz eta justizia-batzordeen protagonistak izanez. UNMS autodeterminazioaren alde ere borrokatzen da, Fronte Polisarioarekin lotutako erakunde bat delako.

Sexu-indarkeriaren **ondorioak** hondatzaileak dira. Emakumeek zauri fisiko eta emozional handiei aurre egiten diete: nahitaezko haurdunaldiak, sexu-transmisiozko gaixotasunak, baliabide ekonomikorik eza, etxeen suntsipena eta seme-alabak babesteko ezintasuna, besteak beste.

Gainera, emakumearen garbitasunarekin edo ospe onarekin lotutako **ohorearen** kontzeptua gizonaren ohorearen isla gisa existitzen den gizarteetan<sup>11</sup>, emakumeak beren komunitateetan arbuatzen dituzte eta, hala, ostrazismora kondenatu eta indarkeriekiko kalteberagoak bihurtzen dituzte. Are gehiago, nazioarteko zuzenbidean ohorearen aurkako ofentsa gisa jaso izan da sexu-indarkeria, emakumeen ohorea apaltasunarekin eta kastitatearekin bakarrik lotuz.<sup>12</sup>

## **NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA**

XIX. mendera arte, gatazka armatuetako sexu-indarkeria ez zen inola ere esplizitu egin; hain zuzen ere, Ameriketako Estatu Batuetako Gerra Zibilean idatzitako **Lieber Kodean** aipatu zen lehenengo aldiz. Bere garairako ikuspegi aurreratu bat jasotzen du, zeinean bortxaketa zehapen larria dakarren portaeratzat

9 Carolina Jiménez Sánchez. 102. orrialdea.

10 Carolina Jiménez Sánchez. 113.-120. orrialdeak.

11 Guadalupe Caveró Martínez. 15. orrialdea


12 Carolina Jiménez Sánchez. 39. orrialdea.

jotzen den. Era berean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipiora hurbiltzen da eta nagusi zen ikuspegi paternalista pixka bat gainditzen saiatzen da, nahiz eta joera hori urte batzuk geroago, **Genevako Hitzarmenekin** (1949)<sup>13</sup>, alderantzikatu.

**Ikuspegi paternalista** horixe ezarri du nazioarteko zuzenbide humanitarioak urteetan zehar, emakumeen babesa adingabeak balira bezala arautu baitu eta batez ere beren ugalketa-funtzio sozialagatik babestu baititu<sup>14</sup>. Emakumeek gatazka armatueta pairatzen duten berariazko indarkeriaren aitortpena berantiarra da eta, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak 2009an **1888. ebazpena** eman arte, sexu-indarkeria ez zen gerra-taktikatza aitortu.

## ERRONKA

Emakumeak eta neskak dira biktima nagusiak gatazka armatuko testuingurueta. Diskriminazioa eta despaketotasuna horrelako egoeretan biziagotu egiten dira eta emakumeentzat bakarrik erreserbatutako indarkeriak larriagotu egiten dira. Dena den, biktimizazioa saihestea, orokortzetik ihes egitea eta emakumeak sufritzaile gisa eta indarkeriaren hartzaile gisa erakusten dituen ikuspegia gainditzea erronka handia da<sup>15</sup>.



«Badirudi errazagoa dela emakumeak babesteaz hitz egitea bake-negoziatioen eta gerraondorako planen maila guztietan erabat barne hartzea baino».

13 Carolina Jiménez Sánchez. 25. orrialdea.

14 Carolina Jiménez Sánchez. 38. orrialdea.

15 Carolina Jiménez Sánchez. 83. orrialde

# Emakume bakezaleak

Gizonen eta emakumeen **sozializazio diferentzialak** dakarren rol-banaketaren ondorioz, gizonei jokabide eta balio jakin batzuk jartzen zaizkie aurrez, hala nola indarra, autoritatea eta oldarkortasuna, eta emakumeei, aldiz, pairamena, samurtasuna eta pasibotasuna. Diferentzia horrek, gainera **parekotasunik ez dagoen** eta emakumeak mendekotasun-egoeran uzten dituen **sistema baten funtsezko euskarria** denez, gizonak bihurtu ditu tradizionalki gerren eta gatazken protagonista, eta emakumeak, berriz, egoera horietan biktima pasibo gisa agertu dira.

Balio horietako batzuk berezkozat eta naturaltzat jotzen dira gaur egun oraindik ere eta ez da beti ikusten arrakala itzelak sortzen dituzten gizarte-konstruktua direla. Horregatik, emakumeari bake-sortzailea, bizitza-emailea, sentikorra eta intuitiboa izatea esleitzen dioten **diskurtso esentzialistek** oraindik ere badiraute eta gizona, ostera, berez oldarkorra eta bere ideien defendatzaile handi gisa ikusten da.

Vida Goldstein sufragista australiarra, zeina Britainiar Inperioaren lehen kargudun hautatua izan baitzen 1903an, bakezale sutsua ere izan zen Lehen Mundu Gerran. Eta, egungo begiradatik harrigarria izan daitekeen arren, haren diskurtsoa ideia esentzialista horren adibidea da:

«Arrazaren Ama gisa, zeuon pribilegioa da bizitza, maitasuna eta edertasuna gordetzea, gerrak suntsitzen duen guztia gordetzea».

Ama-izaeratik abiatuta, emakumez osatutako talde bakezale asko hitz latinoamerikarra den maternaje kontzeptuan oinarritzen dira eta aurrez aurre arbuizatzen dute indarkeria. Lau Amak (Israel-Palestina), Plaza de Mayo Amak eta Amonak (Argentina) eta Soldadu Errusiarren Amen Batzordeen Batasuna taldeak horren erakusgarriak dira.<sup>16</sup>

Ezinbesteko balioak badira ere, bizitza lehenetsi eta erresistentziaz eta bakeaz hitz egiten baitute, azterketa honek emakume bakezaleei dagokienez sustatzen duen begiradak esentzialismoa gaingitzen du eta ulertzen du **gizonek eta emakumeek bai gerrarako bai bakerako gaitasuna daukatela**. Nolanahi ere, sozializazioa (eta «heziketa» hori) egon badago; beraz, normala da gizonek eta emakumeek beren sexuari esleitutako jokabideak kopiatzea.



16 Carolina Jiménez Sánchez. 129. orrialdea.

## ESTIGMA HAUSTEN

Gatazka-testuinguruetan bakezale gisa aurrerapauso bat egitea eta emakumeei dagokien biktima-estigma haustea **egintza botereatsua** da. Emakumeek «*kontrako alderdiko emakumeekin hitz egin dute eta nazioarteko komunitateari bake-prozesuetan bete dezaketen zeregina ikusarazi dioten ekimenak antolatu dituzte elkarrekin. Denbora luzean, inolako aintzatespenik gabe eta inork modu aktiboan kontuan hartu gabe*».<sup>17</sup>

María Vilellas Ariñok<sup>18</sup> honako hau azaltzen du:

«[...] figura femeninoa izaki baketsu gisa idealizatuta egon arren, emakumeek beren gizarteetan bakegintzari egin dioten ekarpenek **ez dute jaso gizarte-aintzatespen** paralelorik eta oso maiz emakumeok ikusezin egin dituzte. Hau da, **ideal femenino baketsua** gizarte-eraldaketako helburuak dituen **subjektu politiko aktiboa bihurtu denean**, orduan **bigarren maila batean baztertuta geratu da**, ia arlo publikoari eta politikoari eragiteko aukerarik gabe».

Irantzu Mendia Azkuek<sup>19</sup> ere azaltzen du: esaten duenez, emakumeek bakegintzan egin duten oinarritzko lana borondatezko edo karitatezko lantzat jo izan da, nahiz eta egiatan ekingiza politikoak izan.



80ko hamarkadan, Beltzez Jantzitako Emakumeak taldea sortu zen Israel-Palestina, giza eskubideen alde eta Israelgo armadak Palestinako lurraldeetan egindako okupazioaren aurka. Emakume palestinarrek eta israeldarrek<sup>20</sup> isilik, beltzez jantzita eta eskuak ere beltzez margotuta biltzen ziren. Mugimendua beste herrialde batzuetara hedatu zen, hala nola Serbiara, Italiara, Belgikara, AEBra, Australiara, Japoniara, Somaliara, Espainiara eta Indiara, eta bakearen arteko nazioarteko mugimendua bihurtu zen.

Horretaz gain, emakume bakezaleen taldeen ezin konta ahala adibide daude historian zehar: *Women's International League for Peace and Freedom, Jerusalem Link, Women's National Coalition, Northern Ireland Women's Coalition*, etab.

17 Guadalupe Cavero Martínez. 17. orrialdea.

18 MARÍA VILLELLAS ARIÑO. Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos. La participación de las mujeres en los procesos de paz (8. or). Lana hemen dago eskuragarri: [https://www.academia.edu/1482477/HALLAR\\_NUEVAS\\_PALABRAS\\_CREAR\\_NUEVOS\\_M%C3%89TODOS\\_LA\\_PARTICIPACI%C3%93N\\_DE\\_LAS\\_MUJERES\\_EN\\_LOS\\_PROCESOS\\_DE\\_PAZ](https://www.academia.edu/1482477/HALLAR_NUEVAS_PALABRAS_CREAR_NUEVOS_M%C3%89TODOS_LA_PARTICIPACI%C3%93N_DE_LAS_MUJERES_EN_LOS_PROCESOS_DE_PAZ)

19 IRANTZU MENDIA AZKUE (2009). Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra (15. or). Hegoa. Hemen eskuragarri: <https://ojs.ehu.eus/index.php/hegoa/article/download/10603/9843>

20 Carolina Jiménez Sánchez. 127. orrialdea.

Emakume horiek guztiek zenbait elementu dauzkate elkarrekin, Irantzu Mendia Azkueren<sup>21</sup> arabera:

- Gaitasuna dute begirada altxatu eta **beren estatuetako mugez haraindi begiratzeko**, nahiz eta dagozkien gobernuek gerraren aldeko jarrerak izan.
- Uste dute **pertsonen duintasuna beste guztiaren gainetik dagoela**, berdin dio gizarte-klaseak, etniak edo bestelako ezaugarriek.
- Haien ustez, **bakea eta** gizonen eta emakumeen arteko **berdintasuna banaezinak** dira.

### **1325. EBAZPENA**

Desparekotasunezko sistema honetan, erabakiak gizonen esku daude oro har. Bake-prozesuak ez dira salbuespena. «*Jakina da emakumea mugatuta egon dela [...] komunitateen ikuskera kulturalarekin lotutako oztopoengatik; izan ere, besterik gabe onartzen da ez daukala presentziarik espazio publikoetan, eremu pribatuaren barruan esleitutako zeregin sozial bat baizik*»<sup>22</sup>. Hori dela eta, emakumeen aurkako krimen asko ez dira bake-akordioetan barne hartu.

2000. urtean, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak 1325. ebazpena, **emakumeei, bakeari eta segurtasunari** buruzkoa, onartu zuen, egoera hori konpontzeko asmoz. UN Women erakundeak azaltzen duen moduan, «*ebazpen horrek agintzen du emakumeek bakearen finkapenean parte har dezatela, giza eskubideen urraketetatik hobeto babestuta egon daitezela eta justiziarako eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko zerbitzuetarako sarbidea eduki dezatela*»<sup>23</sup>.

---

21 IRANTZU MENDIA AZKUE (2009). 18. orrialdea.

22 Guadalupe Caveró Martínez. 21. orrialdea.

23 <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security>

# Emakume borrokalariak

Nzinga (Ndongoko eta Matambako erregina), Lozen (gudari eta xaman txirikahua) eta Joana Arc-ekoa (nekezari eta gudari frantsesa) ezagunak izan daitezkeen emakume-izenetako batzuk dira. Hala ere, **oso gutxi jakiten da gerren protagonistak izan diren emakumeei buruz**, nahiz eta, Guadalupe Caveró Martínezek azaltzen duenez, «*emakume-zerrenda luze batek hartu zuen bere generoagatik ez zegokion zeregin bat [;] Erdi Aroko emakumeak [adibidez] ez ziren bizi izan bata bestearen ondoren sortu ziren gatazka etengabeetatik kanpo. Dena den, egia da partaidetza hori gizonen absentiaren ondoriozkoa zela*»<sup>24</sup>.

Frantziako Iraultzan, gutxienez, 4 emakume iraultzaile izan ziren: Charlotte Corday, Madame Cabarrús, Olympe de Gouges eta Théroigne Méricourt. «*Bai emakume jakobinoak bai girondinoak gillotinareen biktimak edo "Izua" deritzon [...] aldiko protagonistak izan ziren*»<sup>25</sup>.



Haietako batek, Charlotte Cordayk, zeinak irakurketarako eta liburu-erretarako sarbidea edukitzeko eta garaiko pentsalari batzuek inguratuta egoteko aukera izan baitzuen, bidegabekeriaren sinbolotzat jo zuen Jean-Paul Marat jakobinoa. 1793an Maraten etxera joan eta hil egin zuen. Charlotte Corday egun batzuk geroago gillotinatatu zuten horrengatik.

Bere heriotzaren ondoren, jakobinoek maitale asko eduki izanaz eta hilketa gizon batenganako maitasunagatik egin izanaz akusatu zuten Charlotte. Aurkakoa frogatzeko, gorputzari autopsia egin zioten eta haren birjintasuna baieztatu zuten.

Charlotte Cordayren kasuak agerian jartzen du **emakumeei ez zaiela aitortzen beren idealak defendatzeko indarkeriazko egintza bat egiteko gaitasunik**; aitzitik, beren motibazioak bestelako kontuei esleitzen zaizkie, adibidez, emakumeek mendeko izaera dutelakoan gizon batek manipulatuak izateko erraztasunari.

24 Guadalupe Caveró Martínez. 10. orrialdea.

25 Guadalupe Caveró Martínez. 11. orrialdea.



## INDAR ARMATUAK ETA BORROKA-UNITATEA

Hala ere, errealitatea da, **aurreko atalean** azaldu den moduan, emakumeek bai bakerako bai indarkeria erabiltzeko gaitasuna daukatela. Emakumeek indar armatuetan eta borroka-unitateetan parte hartzen dute. Hala ere, emakumez soilik osatutako borroka-unitate bakar baten erregistroa gorde du historiak. Emakume batek zuzentzen zuen: María Bochkareva. 1917ko Errusiako behin-behineko gobernuak alemanen aurka borrokatzera deitu zituen emakumeak eta unitate haiei *Heriotzaren Batailoiak* ezizena eman zieten.<sup>26</sup>

Hala, erraza da, adibidez, Ameriketako Estatu Batuetako itsas armadan emakumeak aurkitzea. Baina **emakumeak indar armatuetan sartzen direnean «salbuespen eta murrizketa ugari dituzte; izan ere, [...] ez zaie baimentzen espezialitate jakin batzuetan sartzea [...] edo mailarik altuenera heltzeko aukera [...] ukatzen zaie»<sup>27</sup>**. Brasilen, adibidez, emakumeek ezin dute zuzeneko borrokako rolik hartu eta Kolonbian, berriz, ez dute onartzen emakumeak maila militar altuenera heltzea.



Heriotzaren batailoia

II. Mundu Gerran, militar japoniarrek Ekialde Urrunean 11 eta 20 urte bitarteko 200.000 emakume eta neska bahitu zituzten, Txinatik, Koreatik, Filipinetatik eta Indonesiatik etorriak. Sexu-esklabo bihurtu zituzten eta kanpamentuetarako etxeko lanetarako erabili zituzten. Emakume konfortatzaileak zeritzen. Egoera hori munduko zenbait zonatan errepikatu da, hala nola Ugandan<sup>28</sup>.

Indar armatuetako emakumeek, haien artean *emakume konfortatzaileek*, ez diete parte hartzearekin lotutako murrizketei bakarrik aurre egiten. Carolina Jiménez Sánchezen hitzetan, beste honekin lotutako arazoak ere pairatzen dituzte: «oinarrizko gizatasunaren aurkako egoerak, Indar Armatuetan egindako egonaldiari berari dagozkionak». Eta agertoki horietan «oso egoera korapilatsuan daude, **bai beren alderdiko soldaduentzat bai etsai-indarreko soldaduentzat direlako jomuga»<sup>29</sup>**.

26. Guadalupe Caveró Martínez. 12. orrialdea

27 Carolina Jiménez Sánchez. 91. orrialdea.

28. Carolina Jiménez Sánchez. 93. orrialdea. Amnistia Internacionala: <https://www.amnesty.org/es/latest/campaigns/2015/09/70-years-on-comfort-women-speak-out-so-the-truth-wont-die/>

29 Carolina Jiménez Sánchez. 13. orrialdea.

## **ASKAPEN-MUGIMENDUAK ETA GERRILLAK**

Nolanahi ere, ohikoena da **emakumeen partaidetza armatua askapen-mugimenduetan eta gerrilla iraultzaileetan suertatzea**. Adibide ugari daude: El Salvador, Nikaragua, Kolonbia, Eritrea, Angola, Namibia, Sri Lanka eta Kurdistan, besteak beste. Baina, Guadalupe Caveró Martínezen arabera, «*emakume guztiek ez dute askatasunez erabakitzen borrokatzea; aitzitik, herrialde askotan neska soldaduak eta emakume terroristak daude, adibidez, Iraken eta Palestinan*»<sup>30</sup>.

## **ARMAK HARTZEKO ARRAZOIAK**

Irantzu Mendia Azkueren arabera<sup>31</sup>, arrazoi anitz daude emakumeek armak hartzeko, baina gutxienez 3 aipatzen ditu:

- Beren borronteaz engaiatzen dira, **beren idealak eta dagokien taldearen interesak defendatzeko**.
- Talde armatu jakin baten kontrolpean harrapatuta geratzen dira eta **bizirik irauteko estrategia** gisa hartzen dituzte armak.
- Familiak eta komunitateak beren gaineko kontrol itogarria duten ingurune sozial eta kulturaletan bizi dira eta talde armatu batean parte hartzea beste rol batzuk betetzeko eta beren patua aldatzeko **ihesbide** gisa azaltzen zaie

## **PROZESU AHALDUNTZAILEA?**

Ez dago adostasunik emakumeek armen bidez parte hartzean ahalduntze-prozesu bat bizitzen duten ala ez eztabaidatzerakoan. Dena den, ezin da zalantzan jarri gerrillan parte hartzen duten edo borrokalariak diren emakumeek **rol berriak esperimentatzen dituztela** eta horrek autokonfiantza areagotzen lagundu dezakeela<sup>32</sup>. Era berean, **gizarte-kontzientzia eta kidesun-sentimendua** areagotzeko bidea ematen du<sup>33</sup>. Horrelako testuinguruetan, zeinetan emakumeek beste rol batzuk hartzen baitituzte, aldaketa izaten da joko-taulan eta genero-harremanei eragiten die horrek. Hala ere, gatazka amaitzen denean, gehienetan **aurrerapenok desagertu egiten dira** eta gatazkaren aurreko *status quo* itzultzen da<sup>34</sup>.

Emakumeek aktiboki parte hartu dutenean ere, **ez dute rol protagonistarik eskuratzen** eta, nahiz eta batzuek «*lehen aldiz beren patuaren jabeak*» direla sentitzen duten, ez dirudi «*ahalduntzeko*» balio dienik<sup>35</sup>, Guadalupe Caveró Martínezen arabera. Edonola ere, emakumeak ez dira beren borrokalari-rolan eta gerrari-rolan aintzat hartu izan eta, beraz, urteetan ezinezkoa izan da emakumeek indarkeriaren sustatzaile gisa izan duten zeregina aztertzea<sup>36</sup>.

---

30 Guadalupe Caveró Martínez. 12. orrialdea.

31 12. orrialdea.

32 Irantzu Mendia Azkue. 13. orrialdea.

33 Carolina Jiménez Sánchez. 235. orrialdea.

34 Carolina Jiménez Sánchez. 235. orrialdea.

35 Guadalupe Caveró Martínez. 12. orrialdea.

36 Irantzu Mendia Azkue. 12. orrialdea.

# Gatazkari buruzko oharrak

Gerrarik ez dagoenean gizartea bakean dagoelako sinesmena hedatu da. Hala ere, **feminismoak sistema patriarkala eta haren indarkeria definitzen duen** heinean, **emakumeak gatazka etengabe batean bizi dira**. Are gehiago, bakeari buruzko azterketek 80ko hamarkadatik daramate «bake positibo» kontzeptua hedatzen, «bake negatibo» terminoari kontrajarrita; hain zuzen ere, adierazten du zuzeneko indarkeriarik ez egoteaz gain egiturazko indarkeriak eta indarkeria kulturalak ezabatzeke ere lan egiten dela.

«Bake positiboaren» ikuspegiak gatazketara askoz modu integralagoan hurbiltzea ahalbidetzen du eta motibazio politikoko gatazka baten adierazpen bortitzak agertu baino lehen, agertu bitartean eta agertu ondoren dauden egiturazko indarkeriak hartzen ditu aintzat. Ildo horretan, bake positiboak kontuan hartu behar duen egiturazko indarkeriaren eta indarkeria kulturalaren parte da sistema patriarkala<sup>37</sup>.

Gerra aurreko testuinguruetan, Carolina Jiménez Sánchezek azaltzen duenez, «*bazegoen genero-diskriminazioa eta, beraz, horrek indarkeriazko jokabideei leku ematen die [...] indarkeriak aparteko egoera bat dagoela esan nahi izan gabe*»<sup>38</sup>. Nahikoa da dokumentu honetan azaldutako kasuak (aterperik gabeko emakume errefuxiatuak, indar armatuetan diharduten eta bai beren alderdiaren bai aurkako alderdiaren indarkeriaren biktimak izan daitezkeen emakumeak, etab.) berrikustea baieztapen hori ulertzeko.

Phoolan Devik berak, bere memorietan, honako hau esan zuen:

«Konturatzen hasi nintzen ni oso indartsu bihurtu arren gizonen boterea beti egongo zela nire irismenetik kanpo. Eta hasi nintzen ikusten, gero eta ikaratuagoa, hori [...] hasi besterik egin ez zen gerra bat zela»<sup>39</sup>

---

37 BAKETIK FUNDAZIOA (2024)

38 CAROLINA JIMÉNEZ SÁNCHEZ. 61. orrialdea.

39 PHOOLAN DEVI y MARIE THÉRÈSE CUNY (1996). 132. orrialdea.

«Mendekua zeure komunitateko norbaiten izenean bakarrik hartu zitekeen. Nik hain zuzen ere arau horri zor nion bizitza, idatzi gabeko lege horri. Baina oraindik ezin nuen onartu, ezin nuen gidatzat hartu, emakumea nintzelako. Nik ez neukan lekurik kasta-hierarkia hartan. Denen azpikoa nintzen eta hil behar nituen deabruak maltzurragoak ziren. Kasta batekoak zein bestekoak izan, denak ziren gizonak»<sup>40</sup>

Ikerketa honek bi gatazka, Guatemalakoa eta Euskal Herrikoa, hartuko ditu kasutzat horietan emakumeen rola zein izan den ulertzeko, iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunak ere kontuan hartuta. Azterketa **ikuspegi feministatik** fokuratuko da eta, beraz, sistema patriarkala, emakumeek beren bizipenetako edozeinetan pairatzen duten indarkeria eta subjektu politiko aktibo gisa aintzatetsiak izateko gaitasun behar dituzten oztupoak identifikatuko dira.

---

40 PHOOLAN DEVI eta MARIE THÉRÈSE CUNY (1996). 280. orrialdea.

# Azterketarako emakumeak

Azterketa honen helburua ez da gatazketan sakontzea, baizik eta **emakumeek** testuinguru horietan **duten zereginari buruzko kontakizunak, edukiak eta ezagutza sortzen laguntzea**. Haien ekarpenak eta bizipenak konplexutasun osoan aitortu behar dira eta haien partaidetzaren garrantzia erreibindikatu behar da.

Nolanahi ere, garrantzitsua iruditzen zaigu ikerketan parte hartzen duten emakumeen jatorrizko bi gatazkak laburki aurkeztea. Horretarako, bakoitzaren deskribapen txiki bat eta mugari garrantzitsuenak biltzen dituzten bi taula sortu ditugu.

## GUATEMALAKO KASUA

Urteak	Hasiera: 1960an, azaroaren 13ko altxamenduarekin. Amaiera: 1996an, Bake Irmo eta Iraunkorrerako Akordioaren sinadurarekin.
Lekua	Guatemala.
Aurrekariak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Herrialdea XX. mendean sartu zenean, politika liberalek hainbat hamarkada zeramatzaten indarrean. Politika haiek esku latifundista gutxiak lurrak pilatzea sustatu zuten eta nekazariei mugak jarri zizkieten neurriak bultzatu zituzten.</li><li>• 1944an iraultza bat izan zen. Horren ondorioz, konstituzio berri bat idatzi eta hamarkada demokratiko bat hasi zen, Juan José Arévaloren eta Jacobo Árbenzen gobernuekin.</li><li>• Konpainia atzerritarrek (United Fruit Company) eta latifundistek uko egin zieten gehienbat indigenez osatuta zegoen landa-biztanleriaren alde egiten zuten eta estatu-azpiegituren sorrera sustatzen zuten politikei.</li><li>• CIAk PBSUCCESS operazioa abiarazi zuen eta estatu-kolpe bat eragin zuen. Hala, Jacobo Árbenz kargutik kendu, modernizazio prozesuari amaiera eman eta 54ko trauma izeneko sortu zen.</li><li>• Castillo Armasen eta Miguel Ydígorasen gobernuek neurri demokratiko guztiak ezabatu zituzten eta alderdi politikoak eta sindikatuak legez kanpokatzen josten, zentsura aplikatzen eta desjabetutako lurrak lur-jabe handiei eta enpresa atzerritarrei ematen hasi ziren.</li></ul>
Deskribapena	Guatemalako gerra zibila Ertamerikako herrialdea <b>hiru hamarkadaz baino gehiagoz</b> astindu zuen <b>gatazka armatua</b> izan zen. Muturreko desperekotasunezko eta pobreziazko barne-egoera bat sortu zen (zeinak gehiago eragin baitzuten biztanle indigenei), bai eta Gerra Hotzeko kanpo-egoera bat ere. Indarkeriazko gertakari hori <b>estatuko aparatuen</b> eta <b>gerrilla matxinatuen</b> artean gauzatu zen. <i>Barne-gatazka armatu</i> ere esaten zaio eta batez ere FTN izeneko aldean (Franja Transversal del Norte/ Iparraldeko Zeharkako Zerrendan) ardaztuta egon zen, baina hiri-eremuetan ere bizi izan zen eta biktima nagusiak jatorri maiakoak izan ziren.

---

### **1960 .**

- Altxamendu militar iraultzailea.

### **1962 .**

- Greba orokorrak eta ikasleen protestak. Sortutako lehen gerrillek Indar Armatu Matxinoetan (Fuerzas Armadas Rebeldes edo FAR) egin zuten bat.

### **1963–1970 .**

- Estatu-kolpea. Konstituzio berria idatzi zen eta hauteskundeak egin ziren, debekatutako alderdiak kanpo utzita. Gerrillen aurkako errepresioa izan zen, lehen pertsonak desagertu ziren eta indar paramilitarrak sortu ziren.
- FAR berrelkartu egin zen (barne-hausturaren ondoren) eta gerrilla jendea bahitzen eta erailtzen hasi zen. Azkenean, kontrainsurjentziak FAR txikitu zuen.
- Elizaren rola hautsi zen. Kontzientiazio-lanak eta gizarte-lana egin zituen talde behartsuenekin.

### **1970–1978 .**

- Arana Osorioren gobernu (70-74) eta Laugerud Garcíaen gobernu (74-77).
- BPGd-a hazi zen eta desparekotasuna handitu zen. Errepresio gogorra izan zen Gobernuaren kontrako eta armadak edo paramilitarrek bultzatutako proiektuen kontrako oposizio ororen aurka.
- Gizarte-mugimenduak berpiztu ziren, batez ere indigenak. FTNko proiektu garapenzaleek aurkakotasuna jasan behar izan zuten.
- FAR berregituratu zen eta matxino-talde berriak (EGP eta ORPA) jaiotzen. Iparaldean kokatu ziren eta herri maiarekiko eta erdiko eta beheko gizarte-klaseekiko aliantzak bilatu zituzten.

### **1979–1985 .**

- Lucas Garcíaen, Ríos Montten eta Mejía Víctoresen gobernuak.
- Indarkeria larriagotu egin zen eta militarizazioak aurrera egin zuen hainbat teknikarekin, hala nola Tierra arrasada teknikarekin altiplanoan eta Autodefensa Zibileko Patruilekin (Patrullas de Autodefensa Civil edo PAC). Genozidio maia, batez ere 1981 eta 1983 bitartean.
- Antolakuntza sozial eta politikoaren desegituraketa errepresio basatiaren ondorioz. Gerraren gertakari lazarrienak bizi izan ziren, Lucas Garcíaekin eta Ríos Monttekin.
- Gerrillek hiri-eremuetara hedatzeko egindako saioek ez zuten arrakastarik eduki, Ríos Montten errepresioak suntsituta.
- Mejía Víctoresen gobernuan gizarte-mugimendua berpiztu zen.

### **1986–1996 .**

- Trantsizio politikoa Cerezo Arévaloren, Serrano Elíasen, Ramiro de Leónen eta Álvaro Arzúren gobernuenekin.
- Akordioak lortzeko lehen urratsak egin ziren, matxinadaren eta haren oinarrien aurkako presioa mantendu arren.
- Gizarte-mugimendua berpiztu zen.
- Akordio guztiak sinatu ziren. Esquipulasko akordiotik Bake Irmo eta Iraunkorreraino.

---

<b>Akordioak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esquipulaskoa, 1987ko abuztuaren 7an</li> <li>• Querétarokoa, 1991ko uztailaren 25ean.</li> <li>• Argitze Historikorako Batzordea (Comisión para el Esclarecimiento Histórico edo CEH) ezarketa, 1994ko ekainaren 23an.</li> <li>• Behin betiko su-etena, 1996ko abenduaren 4an.</li> <li>• Bake Irmo eta Iraunkorra, 1996ko abenduaren 29an.</li> </ul>
------------------	---

---

<b>Biktima-kopurua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• la 200.000 biktima eta 45.000 desagertu, eta zenbatesten da % 83 maiak eta % 17 ladinoak izan zirela.</li> <li>• la milioi bat lekualdatu.</li> <li>• Biktimak, gerrako mugimendu militar eta paramilitarrekin lotutako iturrien arabera: % 93 estatuarenak, % 3 gerrillenak, % 4 jatorri ezezagunekoak.</li> </ul>
------------------------	--

---

## **EUSKAL HERRIKO KASUA**

Guatemalako kasuak bezala, Euskal Herriko gatazkak ere badauzka bere berezitasunak. Emakume Internazionalistak elkarteko Iruñeko aktibista feminista den Begoña Zabala Gonzálezek, 2008an<sup>41</sup>, honako hau azaldu zuen:

«Begi-bistakoa da ez dugula bizi ez gerra-egoerarik, ez erabateko gatazka armaturik, ez liskar beliko irekirik. Biztanleria zibilaren bi alde gero eta gehiago elkarren aurka jartzen ari den gatazka baten osagaiak daude gure ustez, estatuaren eta haren aparatuen eta ETA erakundearen arteko liskarraz gain. Jartzen diogun izena jartzen diogula ere, eta gatazkaren ezaugarriei buruz ados jarri zein ez jarri, une jakin batean ikusi genuena izan zen hitz egiteko eta konponbidea emateko momentuak iritsi zirela eta minez eta liskarrez betetako momentuek jarraitzen zietela ondoren, eta emakumeok beharbada bagenuela zeresanik, feminismotik, bai gatazkari bai konponbideari buruz».

Hori kontuan hartuta, jarraian dagokion laburpen-taula aurkezten dugu:

---

41 BEGOÑA ZABALA GONZÁLEZ (2008). *Movimiento de Mujeres, Mujeres en Movimiento*. 185. orrialdea. Txalaparta, Iruñea

---

## URTEAK

Hasiera: ez dago data zehatz eta adosturik. Askotan ETArekin sorrerarekin identifikatzen da, hots, 1958. urtearekin, baina zenbait adituk, hala nola Argituz elkarteak, 1960. urtea zehazten dute hasiera zedarriztatzeko.

Amaiera: 2011n, ETak urriaren 20an jarduera armatuaren etenari buruz egindako komunikatuarekin.

---

## Lekua

Euskal Herria, Espainiako estatua eta, hein txikiagoan, Frantziako estatua

---

## Aurrekariak

- Hego Euskal Herriak XIX. mendearen bigarren erdian behin betiko galdu zituen foruak.
  - Industrializazioak, batez ere Bizkaian arduzuta, mendearen amaieran euskal nazionalismo berri bat sorrarazi zuen, molde kontserbadore eta erlijiosokoa (EAJ). Hurrengo hamarkadetan, zatiketa aurrerakoiagoak eta akonfesionalak sortu ziren (EAE/ANV).
  - Espainiako Gerra Zibilaren eta Ardatzeko potentzien porrotaren ondoren, Espainia nazioartetik bakanduta geratu zen, gosea eta pobrezia sortzen zituen ekonomia autarkiko batekin, nahiz eta 50eko hamarkadaren amaieran irekitzeko urratsak egiten hasi.
  - Ezarritako erregimen diktatorialak gerraondoa eragindako errepresioaren ondorioz, gizartea zapalduta egon zen eta aniztasun politikoa inausita geratu zen.
  - Molde kontserbadoreko euskal nazionalismoari buruzko inakzio-kexei erantzuteko, Ekin jaio zen. Militantziako urte batzuen ondoren, 1958an, Ekin ETA bihurtu zen.
- 

## Deskribapena

*Euskal gatazka* deitua motibazio politikoko indarkeriazko gatazka bat da, bost hamarkada baino gehiagoz Euskal Herrian, Espainiako estatuan eta Frantziako estatuan gauzatu dena. Euskal Herriaren autodeterminazio-eskaeragatik sortu zen. Eskaerak zazpi euskal probintziak hartzen ditu barne: Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Iparralde. Hauek dira eragile nagusiak: **estatuak** (batez ere Espainiakoa), **zenbait talde paramilitar** (BVE, GAL, Triple A...) eta **Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua** (ENAM), non zenbait **talde terrorista** sartzen diren, hala nola ETA, KAA eta IK, besteak beste.

---



---

### **1959-1961 .**

Gobernu frankistak, ETAre jarduerari (pintaketak egitea, ikurrinak eta lehergaiak jartzea) erantzuteko, EGI (Euzko Gaztedi) eta ETA (Euskadi ta Askatasuna) taldeetako kideak atxilotu zituen. Poliziak Javier Barrutieta Elexpuru euskal herritarra ETako kide batekin nahasi zuen eta 1961eko martxoaren 27an bere autoan tirokatu zuten.

### **1961-1968 .**

ETak bere lehen hilketa egin zuen (1968an), errepideko kontrol batean, eta José Pardines hil zuen. Komandoaren jazarpenean Txabi Etxebarrieta ETako militantea, bandako lehen biktima, tirokatu zuten eta hiltzeko zauriak jasan zituen.

### **1968 .**

Abuztuan, ETak aurrez pentsatutako bere lehen atentatua egin zuen: Melitón Manzanás polizia frankista.

### **1973 .**

Abenduaren 20an, ETak Carrero Blanco hil zuen, Francisco Franco diktadorearen ondorengoa izatekoa zena. Urte batzuk lehenago, Burgosko Prozesuan, gizarte-mobilizazio bizien ondorioz (bai naziokoak bai nazioartekoak), erregimen frankistak ETako sei militanteri ezarri nahi zizkien heriotza-kondenak konmutatu behar izan zituen.

### **1975 .**

Azaroaren 20an Franco hil zen. Hil baino lehen, irailaren 27an, azken exekuzioak izan ziren. Eraildako pertsonen artean, ETako bi militante eta FRAPeko (Frente Revolucionario Antifascista y Patriota) hiru zeuden. Urte horietan, eta 1977ra arte, ETak bere jarduera areagotu zuen eta urtean 10 biktima baino gehiago izan ziren.

### **1975-1982 .**

*Espainiako Trantsizioa* izeneko aldia. Lehen hauteskundeak egin ziren, Konstituzio berri bat onartu zen, estatu-kolpe saio batek huts egin zuen eta PSOEk (alderdi antifrankistak) presidentetza irabazi zuen.

### **1979-1980 .**

ETaren atentatuek gora egin zuten, jende gehien erail zituen urteak dira (80 eta 96, hurrenez hurren). Eskuin-muturreko talde armatuek eta talde parapolizialek ere beren jarduera areagotu zuten eta 1980an 21 pertsona erail zituzten.

### **1982-1996 .**

Felipe Gonzálezen gobernuak. GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación edo Askapenerako Terrorismoaren aurkako Taldeak) sortu zen Espainiako estatua terrorismoaren aurka borrokatzeko metodo gisa. «Gerra zikineko tresna» gisa ere deskribatu izan dute, estatuko errepresioa eta sortutako biktimen kopurua (batez ere ETakoak) kontuan hartuta.

- Urte horietan, ETaren lehen tregoa eta gobernuaren eta banda armatuaren arteko negoziazioak izan ziren.
- 1989an, presoak sakabanatzeko politika hasi zen, zeinak 2023ko martxora arte iraun baitzuen.

---

### 1995.

ETAren estrategia-aldaketa. Lehenengo aldiz, bandak politikari bat, Gregorio Ordóñez, erail zuen eta horrek, ondorengo beste hilketak batzuekin batera, hala nola Miguel Ángel Blancorena, gaitzespena eta ordura arte ikusi gabeko manifestazio sozialak sortu zituen.

### 1996–2004.

Aznarren gobernuak. ETak hasiera batean bere intentsitatea jaitsi zuen eta 1998an aldebakarreko tregoa mugagabe bat ere eman zuen, euskal nazionalismoan zegoen adostasun-giroan eta Lizarrako Hitzarmena sinatzearekin batera. Horri esker, ehun bat preso hurbildu zituzten.

- Negoziazioen porrota. ETak berriz hartu zituen armak eta Gobernuak 6/2002 *Lege Organikoa* edo *Alderdiei buruzko Legea* onartu zuen. Horren bidez, ezker abertzaleko alderdi politikoak legez kanpokotzat jo eta erakundeetatik baztertu zituzten.
- Egunkariaren itxiera. 2003an, *Egunkaria* izenekoa. Urte batzuk lehenago, *Egin*.

Zapateroren gobernuak. Tregoa partzialak adosten joan ziren eta, horri esker, negoziazio-giro bat sortu zen. Hasiera batean huts egin arren, ETAren atentatu hilgarriak minimoetara murriztea lortu zuten eta indarkeriarik gabeko etorkizunerako aukerak sortu zituzten. Horrek ahalbidetu zuen ezker abertzalearen barruan bide baketsu eta politikoen alde soilik egiteko gogoetak sortzea eta, horrela, geroko akordioak eta tregoa sustatu ziren.

---

## Dokumentuak

Euskal bake-prozesuak ez dauka prozesu klasikorik non inplikaturik dauden eragileek akordio ofizial bat egiteko esertzen diren. Aldebakarreko urratsek eta espazio diskretuetan egindako akordioek markatu zuten prozesuaren garapena.

Hona hemen ETAren kronologia, desegin zen arte::

- Tregoa iraunkor eta egiaztagarri bati buruzko ETAren adierazpena, 2011ko urtarrilaren 10ean.
- Jarduera armatuaren behin betiko etenari buruzko ETAren adierazpena, 2011ko urriaren 20an.
- ETAren armagabetzea, 2017ko apirilaren 8an.
- ETAren desegitea, 2018ko maiatzaren 3an.

Beste akordio asko egin ziren erakundeen eta eragile politiko eta sozialen artean, bai tokikoak bai nazioartekoak, zeinek indarkeriari amaiera emateko baldintzetako batzuk sortu baitzituzten.

---

## Biktima-kopurua

ETAren eta beste banda armatu batzuen biktimak: 845 eta 853 bitartean.

Estatu-errepresioaren edo indar paramilitarren biktimak:

- Hildakoak: 164 eta 473 bitartean.
  - Torturatuak: 5.379, Kriminologiaren Euskal Institutuaren arabera.
-

# Nork kontatzen du historia?

Plaza Pública komunikabide guatemalarrak, 2019an, *La Guerra en los libros*<sup>42</sup> izeneko artikulua argitaratu zuen. Bertan, Guatemalako gerrari buruz idatzi den edukiaren analisi baten emaitzako datuak eskaintzen dira.

«Testu hauen analisitik zenbait ondorio atera ditugu: **historia hau, gehienbat, gizonak kontatzen dute, eta tituluaren % 15 bakarrik idatzi zituzten emakumeek**. Erdiak baino gehiago, % 58, akademikoek idatzi zituzten; % 13, militarrek; % 11, gerrillari ohiek; eta gainerakoak titulu literarioak edo kazetaritzakoak izan ziren.

Gehienek bake-negoiazioez eta gerraondoaz hitz egiten dute nagusiki; berrogeita hamar inguru laurogeiko hamarkadari buruzkoak dira, alegia, gatazkaren urte gogorrenei buruzkoak; eta 24k baino ez dute gerraren hasiera aztertzen».

Argitalpenak bake-akordioak sinatu eta hiruzpalau urte geroago hasi ziren agertzen. Liburu ezagunetako bat eta asaldura handiena sortu zutenetako bat gatazka armatuaren garaian idatzi zen eta, hain zuzen ere, emakume batek idatzi zuen: Elizabeth Burgos venezuelarrak. *Me llamo Rigoberta Menchú y así me nació la conciencia* (1983) liburuak «estatu-botereak biztanleria zibil indigenaren aurka egindako gehiegikerien lekukotza» bat ezagutarazi zion munduari. Liburuari esker, historiaren protagonistak, Rigoberta Menchú, Bakearen Nobel Saria lortu zuen 1992an.

---

42 ELSA CORONADO (2019): *La Guerra en los Libros*. Plaza Pública. Artikulua hemen dago eskuragarri: <https://www.plazapublica.com.gt/content/la-guerra-en-los-libros>

# Emakumeen ezabaketa

Mendeetan, emakumeak ez dira agertu historiako narrazio handietan. Ikertzaileek eta historialariek ezabatu egin dute emakumeen zeregina, baita berdintasunezko printzipioetan oinarritutako gertakarietan ere, hala nola langile-klasearen borroketan eta iraultza-mugimenduetan<sup>43</sup>.

80ko eta 90eko hamarkadetan, emakumeen ikasketak lekua irabazten hasi ziren eta, horrela, **narrazio maskulinoa eta historia hegemonikoa aldatzeko gaitasuna** frogatu zen. Emakumeen ikasketen garrantziak historia sozialaren gorakadarekin bat egin zuen, eta horrek ikuspegi berriak ekarri zituen berekin, «behetik» begiratzen eta ordura arte ahotsik eduki ez zutenengan arreta jartzen hasi zirenak. «[...] diziplinak metodologia jakin bat ekarri zuen, bi helbururekin hain zuzen ere: alde batetik ahots femeninoak berreskuratzea, eta bestetik, emakumeen zeregin historikoa sozialki eraiki dela erakustea, eraikuntza horren helburua ezarrita zegoen kontrol patriarkala iraunaraztea izanik. Hala, historia bera zapalkuntza femeninoaren kausa ugarietako bat dela agerrarazi zen»<sup>44</sup>.



«Borroken eta lorpenen geure historiaz daukagun ezagutza-falta emakumeok mendeen mantentzeko modu nagusietako bat izan da».

«Emakumea, hitz egiteko aukera bereganatuz, [...] historian sar daiteke [...] eskubide osoz, sistema sinboliko eta prozesu politiko guztietan».



43 *El libro del feminismo*. 154. orrialdea.

44 *El libro del feminismo*. 154. orrialdea.

# Helburuak

Ezagutza sortu duten egile eta ikertzaile feministen lanari esker eta aktibista ezagun eta anonimoei esker (haietariko batzuk dokumentu honetan aipatu ditugu) posible izan den ibilbide labur honen ondoren, agerian geratu da **emakumeen ahotsetatik abiatutako narrazio bat eta memoria historiko bat eraiki behar direla**.

Azterketa honek bizi-historiak eta lekukotzak txirikordatzen ditu, Euskal Herriko eta Guatemalako gatazkekiko jarrera zehatzetan sartu gabe. Horren ordez, emakumeen bizipenetan jartzen du arreta. Hala, hauek dira ikerketa honen helburuak:



1.

Emakumeek gatazka-testuinguruetan izan dituzten **elementu komunak** eta bizipen-elementuak aurkitzea.

2.

Emakumeek gatazka-testuinguruetan bete dituzten **rolak** identifikatzea

3.

Emakumeek **gatazkaren ondorengo** etapetan izan duten **zeregina** aintzatestea.



# Metodologia

Ikerketa hau egiteko, zenbait fase barne hartzen dituen ikuspegi egituratu bati jarraitu zaio, emakumeek gatazka-egoeretan betetako rolak ulertzeko helburuarekin. Jarraian, prozesu metodologikoaren etapak zehazki deskribatzen dira:

1. **Bibliografia berrikustea**, ikerketaren oinarriak finkatzen duen eta haren diseinua eta garapena bideratzen dituen esparru teoriko sendo bat emateko.
2. Tartean dauden emakumeen errealitateak ulertzeko erreferentziatzat hartutako **bi gatazka** jakin **testuinguruan sartzea**. Horrela, gatazka bakoitzaren ezaugarri bakanak eta emakumeen roletan izan duten eragina identifika daitezke.
3. **Parte-hartzaileak hautatzea**. Emakume parte-hartzaileak identifikatu eta hautatzeko, **Mugen Gainetik** eta **Baketik** erakundeek esperientzien askotariko irudikapena bermatzeko asmoz ezarritako irizpideak hartu ziren oinarri. Gatazken konplexutasuna dela-eta, ahots guztiek ez dute azterketa honetan parte hartu. Hala ere, parte hartu duten emakumeen kontakizunen bidez eta erreferentzia bibliografiko batzuen bitartez hona ekartzeko lana egin da.
4. **Formularioa diseinatzea**. Parte-hartzaile guztientzako galde-sorta komun bat diseinatu zen, gatazketan izan zituzten bizipenei eta rolei buruzkoa, parte-hartzaileen artean konparatzeko moduko informazioa biltzeko asmoz.
5. **Elkarrizketa sakonak** 11 emakumerekin: 5 parte-hartzaile guatemalarrak ziren eta 6 euskaldunak. Elkarrizketak haien bizipenen alderdi unibertsaletan ardaztu ziren, gatazka bakoitza alde batera utzita.
6. **Edukia aztertzea**, elkarrizketatutako emakumeek partekaturiko narratibak eta esperientziak arakatzeko. Ikuspegi kualitatibo horren bidez, zeharkako elementuak eta emakumeek gatazka-testuinguru desberdinetan betetako rolen arteko konexioak identifikatu ziren.
7. Edukiaren azterketan oinarrituta **ondorioak ateratzea**, azterketaren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzeko.

Horrenbestez, azterketa honen asmoa da elkarrizketatutakoen bizipenak osorik ulertzea eta gaiari buruz dagoen ezagutzari ekarpena egitea. Hurrengo orrialdeetan, lan horren emaitza aurkezten da.

Azkenik, bi elkarrizketaturen izena aldatu dugu haien anonimotasuna gordetzeko.







2. ATALA

**MIAKETA**



# Isiltasuna

*De eso no se habla* podcastean, isiltasun pertsonalak eta kolektiboak bilatzeko lana egiten da eta haien arteko puntuak lotzen dira, isiltasunok modu narratiboan hausteko asmoz. Lehen denboralditik bigarren denboraldira arte bi urte inguru igaro dira eta kalderoi musikalaz hitz eginez itzuli dira. Hain zuzen ere, kalderoia fluxu melodikoaren edo erritmikoaren une bateko etenaldia da, entzuten dutenengan efektu hunkigarria izan ohi duena.

Pultsu musikalean egindako isilune horrek ez dauka iraupen zehatzik, interpreteak erabakitzen duena baizik, baina, podcastean azaltzen duten moduan, pertsona askok iraunaldi jakin bat gomendatzen dute. Emakumeek gatazka-egoeretan dituzten rolei buruzko azterketa honetan, badaude hautsi diren isiltasunak. Beste batzuk airean esekirik geratu dira, taupadaka, interpreteak hala nahi duelako oraindik ozenki esaten ez diren hitzen lekua betetzen. Oraindik itxita dauzkan kristal gogorraz eta ezkututzen dituen lainopeaz jakitun diren isiltasunak ere izan dira. Baita azterketa honetan parte hartu ez duten baina kolektiboa den isiltasun hori narratzeko beharrezkoak diren bizi-historiak dauzkatenen isiltasuna ere.

Bibianak lagunekin bere minari buruz oraindik eduki ez duen elkarrizketa sakon eta zintzoaz hitz egin du. Maitek aipatu du mintzatzen denean isiltasun arraroak sortzen direla bere inguruan. Gloriak kontatu du Guatemalako gerran abusua pairatu zuten neskak trauman isilduta daudela. Lekukotza honetatik babesten ari garen elkarrizketatu batek sexu-erasoak pairatu zituela esan du. Eta gero, isiltasuna. Eta beste galdera batera pasatu gara. Susana, zeinak *Bakearen Aldeko Koordinakundean* parte hartu baitzuen, isiltasun aktiboaz mintzatu da, erantzun esnatua den isiltasunaz.

Datozen orrialdeetan aurkezten den azterketaren asmoa da **isiltasunetako batzuk haustea, baina baita melodiak jotzen dituztenen isiluneak errespetatzea ere**. Gainera, azterketak ahots guztiak biltzen ez dituen arren, modu sentiberan ekartzeko ahalegina egiten du.

# Lehen isiltasuna

«Gai izango ote naiz?».

«Ez dakit eskaintzeko askorik ba ote daukadan».

«Zuk esango didazu esaten dudanak balio ote dizun».

Lehenik, hasi aurretik, barkamen-eske bat. Barkatu, ziurrenik nahikoa ez naizelako. *Barkatu, nire historia ziur aski ez delako gauza handirik*. Ez du axola ez adina ez emakume euskaldunak ala guatemalarrak diren: **generoak eta haren mandatuek berdin gurutzatzen dituzte emakume guztiak**. Historiak, letra larriz idazten den eta unibertsala dirudien horrek, emakumeen kontakizunek garrantzi txikiagokoak iruditzea sustatu du, kontuan hartzea mereziko ez balu bezala. Eta elkarrizketatutako emakume guztiak beren balioa aitortzeko bidaia pertsonal eta kolektibo batean badaude ere, errealitatea da ia guztiek barkamena eskatuz aurkeztu dutela beren burua.

Barkamen-eskearen ondoren eta leku abegitsua eta segurua sortzeko asmoz elkar aintzatetsi ondoren, lehen galdera doa. *Zer da bakea?* Eta, berriro, erantzun partekatu bat. Hasperen baten soinuaz, aire-ahokada sakon baten soinuaz betetzen den isiltasun bat. Bakea irrika eta pisua da. Bakea nahia eta mina da. *Bakea berriro ere beste galdera batekin erantzuten den galdera bat da:*

«Ai, Jauna... Zer da bakea?».

Haien berehalako erantzuna, gorputzak, keinuek, begiradaren norabideak, arnasak eta ahots-doinuak salatzen dutena, ahobatezkoa izan da. Zailtasuna, historia, mina, beharra eta itxaropena emakumeen aurrepigeran nahasi egiten dira galdera bota eta hurrengo segunduan.

Eta hori da, inolako zalantzarik gabe, denen arteko lotura argienetako bat, haien jarrera ideologikoa eta bizi izan duten gatazka edozein direla ere. Bakean pentsatzean ematen duten lehen erantzunak, erantzun inkontzienteak, geruza guztien azpian dagoenak, antzeko sentimendu, atsekabe eta irrirez hitz egiten du. Bakeak, antza, denbora, gorputza eta bihotza behar ditu. Bakeak eskuzabaltasuna, zintzotasuna eta elkarrekiko aintzatespena gidatzen hartzen dituen ekintza etengabea eta iraunkorra behar du.

Behin arnasa hartu eta nor bere historiarekin konektatu denean, deskubritzen dugu badaudela bakea bizitzeko eta bakera hurbiltzeko modu desberdinak; emakume batzuek kosmobisio indigenaren barnean kokatzen dute eta beste batzuek, aldiz, fede katolikoan. Halaber, emakume batzuek oso ikuspegi politikoa dute, baina beste batzuk beren etxeko esperientzietatik abiatzen dira. Edonola ere, ikuspegi osagarriak dira, ez absolutuak, eta kasu askotan emakume berberarengan korapilatzen dira.

# Min gurutzatuak

Horrela deritze *Calla y Olvida* (2023) liburuaren egileak, Andrea García Gonzálezek, gatazka-testuinguruetan, zehazki Euskal Herrikoan, familia-nukleoetan eta gizarte-ingurune hurbiletan izaten diren bihotz-hausturei. Eta Jesús Mariren, ETAK 2000. urtean erail zuen PPko zinegotziaren, alargun Mari Carmenen kasua narratzen du. Senarraren argazkia Durangoko Andra Maria basilikako portikoan egon zen tarte batez. Pixka bat geroago, Urkoren eta Zigorren argazkiak agertu ziren. Haiek ere Durangokoak ziren, hilketaren egileak, eta ETAko beste bi kiderekin batera zihoazen autoaren leherketan hil ziren. 22 eta 23 urte zeuzkaten.

Portikoan beste norbait ere bazegoen. Asier. Jesús Mariren iloba, zeinarekin oso harreman estua baitzeukan. Asier. Urkoren eta Zigorren laguna. Denak kuadrilla berekoak ziren. Asier osabaren hileta-mezan egon zen. Baita Urkori eta Zigorri egindako omenaldian ere. Eta min gurutzatu horretaz ari da Andrea García González. Guatemalan ere sentitu den min gurutzatuaz.

## Lourdesen historia

Lourdesek 7 eta 10 urte bitartean dauzka Guatemalako gerrako aldirik ankerrenean. Armen soinua berehalako mehatxua bihurtu dela entzutean, eskolan ahizpa zaharraren bila korrika egin du eta biak irten dira etxera ahalik eta lasterren heltzeko. Badaude soinuak desberdinak diren egunak: Bake Epaitegiaren ondo-ondoan gelditzen diren anbulantziak. Lourdes eta ahizpa irten eta hurbildu dira. *Zer ote dago hor?* Anbulantziara igo, eta barruan gorpuak aurkitu dituzte. Beste batzuetan, haurren jakin-mina ez da beharrezkoa, gorpuak parkean uzten dituztelako, hatuetan, hostoetan edo nylonean bilduta, agerian.

Lourdes amaren eta aitaren etxean ari da hazten, ahizpekin batera. Aita soldadutza egiten ari da. Hala ere, osaba, aitaren anaia, Guatemalako Pobreen Armadako kidea da. Bata estatuarena da. Bestea, ordea, gerrillarena. Lourdesen aita oso gizon jainkozalea da eta emakumeak ez ditu estimu handitan. Lourdesek ez dauka anaiarik, denak neskak dira. Aitak alkoholarekin lotutako arazoak ditu eta osaba bihurtzen da familiarentzako ezinbesteko euskarria, Lourdesi aitarenaz oso bestelakoak diren mezuak botatzen dizkion aita-figura.

Lourdesen osaba, zeina katekista eta ereduzko kooperatiben sortzailea eta kudeatzailea baita, bahitu egin dute. Lourdesek, oraindik nerabea denez, ez daki zer zeregin bete nahi duen. Osaba egun batzuk geroago hilda aurkitu dute, aitak dituen kontaktuei esker. *Zure osabaren ideologiak eragin du hau guztia*, dio aitak. Osabaren hilketaren minarekin, Lourdes liburuak irakurtzen hasi da historia aztertzeko. Eta aitarenaz oso bestelakoak diren liburuak irakurtzen ditu.

«Aitak afalondoan armadan zegoeneko istorioak kontatzen zituenean, nik ezin nuen imajinatu pertsonen jazarpenaren parte izaten ari zela. **Alde batetik osaba ikusi eta beste aldetik aita imajinatu. Niretzat gatazka oso-oso gaiztoak izan ziren».**

Duela gutxi, aita jada nagusia dela eta bizitzari agur egiten ari zaiola, Lourdesek liburu bat esku artean daukala ikusten du: *Guatemala: eterna primavera, eterna tiranía*. Liburuak armadan egin zituen eskubide-urraketei buruzko irudiak biltzen ditu. Lourdesen aitak alaba besarkatu, liburuia seinatu eta esaten du: «*Hor esaten den guztia egia da, ezin da ukatu*».

Lourdesek osabaren lekukoa hartzen du, haren idealen sustatzaile bihurtzen da eta komunitateetan eta, batez ere, emakumeengan ardatzuta lan egiten hasten da. Lourdesek isiltasunak hausten ditu. Eta Lourdesek uste du berak egin duen horretatik zerbaitek aita sendatu egin duela, betirako alde egin baino lehen.

## Belaunaldi arteko mina

Gloria Almira indigena guatemalarrak dioenez, **emakumeak lehenik beren burua sendatuz ari dira parte hartzen**, Guatemalan belaunaldi arteko trauma psikosozial handi bat dagoelako. «*Guk, gatazka horrekin ados egon zein ez, kolpeak hartu genituen eta trauma hori geure seme-alabei eman genien oinordetzan*».

Maite 28 urteko gazte euskalduna da. ETAk haren osaba hil zuen eta haren familia bake-prozesuetan aktiboki nahasi zen. Maitek Zuzenbidea ikasi du eta Giza Eskubideetan espezializatu da. Oraindik galdetzen dio bere buruari erabaki horiek eman dioten oinordetzagatik hartu ote dituen ala erabaki askea izan ote den. Maite oso gaztea zen dena gertatu zenean, baina ezin du saihestu albora begiratzea, lehengusinari, zeinak aita galdu baitu. Eta nola bakoitzaren familia, odolaren eta esperientzien bidez lotuta egon arren, modu desberdinetan markatuta geratu den.

Maite irekitasunarekin eta sen kritiko handiarekin hezi zuten eta, horregatik, mota guztietako lagunak dauzka. Bere familiak estereotipo eta aurreiritzi batzuk hautsi izana eragin du horrek. Maite, nolabait, iragana eta oraina aintzatespenaren bitartez komunikatzen dituen kanala da. Jakina, Maite askotan soka mehe batetik dabil eta batzuetan tabu baten sendotasunaren aurka egiten du aurrez aurre talka. Edo isiltasunak jasotzen ditu erantzun gisa. Izan ere, Maitek espazio eta testuinguru guztiak irakurtzen ikasi duen arren eta batzuetan eta besteetan esatea espero dena badakien arren, egin egiten du. Hitz egiten du. Nahiz eta prezioa izan jendeak haren gainean etiketa bat esekitzea eta etiketa horretatik ihes egiten ez uztea.

# Nor naizen

«Justiziarako eskubidea daukagu, entzunak izateko, genero-ekitatearen alde borrokatzeko, berdin balio dugu. **Geure buruarekiko erantzukizun eta leialtasun handia eduki behar dugu**».

(Marta, Guatemalako)

## Zein da Itxaso?

Itxasok bere esperientzian bi une argi bereizten ditu: bere bikotekide Kepa espetxeratu aurretik eta espetxeratu ondoren. Kepa espetxeratu dutenean, 1991n, Itxaso 8 hilabeteko haurdun dago. Zaila egiten zaio etxean sartzea. Hutsunea. Isiltasuna. Baina haren seme Eneko jaiotzeaz dago eta, hain bizi-aldaketa erradikalaren aurrean, Itxasok aurrera egiteko modua bilatzen du. *“Eta orain? Nola hasten naiz ni berriro? Hor kriston zaplaztekoa eta ekaitza neure barruan. Momentu oso-oso zailak”*.

Kepa espetxeratu aurretik, honako hau da Itxasoren autopertzepzioa: *«borrokalaria, “nik dena gainditu dezaket”»*. Gero *nik dena gainditu dezaket* horrek indarrean dirau, baina aldatu egiten da. Orain ama eta aita da. Salbatzailea. Eta sakrifikatua. Kartzelarako lehen bidaia Eneko jaio eta handik hilabetera egiten du. Itxasok abiada bizian metatzen ditu kilometroak, hilean bi bisita eginez. Pertsona batzuek agurra ukatzen diote kalean. Telefonoaren erantzungailuan hiltzaile deitzen dioten mezuak daude. Itxasok berearekin jarraitzen du: *dena gainditu dezaket*. Estaltzen duen azala elikatzen du, baina bere barne-ahotsak ozenkiago hitz egiten du eta bere burua hau esaten entzuten du: *bueno, nahikoa da*.

“Hor agertzen dira gauza asko gustatzen ez zaizkidanak, urte askotan tapatuta eukin ditudan horiek, nire beldurrak, zalantzak, malkoak... Hor hasten da ‘zein da Itxaso, nor da Itxaso eta nola dago Itxaso’.

Rol asko izan ditut. Non geratzen nintzen ni guzti horretan? Oso, oso, oso, oso enterrauta, ezkutatuta hortxe”.

Itxaso bere buruari errukizko eta maitasunezko begirada bat oparitzen hasten da. Hasieran, Kepari egindako bisiten kopurua murrizten du, Kepak ere hori egiteko animatuta, eta hilean behin bisitatzen hasten da. Itxasok bere burua zaintzeko eta bere hazkunde propioan ardazteko leku gehiago behar izan ahala, aldi berean haurra hazten eta supermerkatu batean lan egiten ari denez, bisiten arteko aldia luzatu egiten da. Hasieran Itxasoren sentimendua erruduntasuna da eta bere burua justifikatzeko joera du, baina

bere buruarentzat eskuragarri egoteko lekua aurkitu beharra hain handia da, non erruduntasuna laster uzten baitu atzean. Itxasok azaltzen du Kepak bere erabakian emandako elkartasunak ere laguntzen diola prozesuan.

Itxaso hain konbentziturik dago egiten ari denarekin, ezen oso argia baita bere ingurunean epaitzen hasten direnean. Ama ona, bikotekide ona eta militante ona izatea espero dute harengandik. Bere burua kausa partekatu batengatik espetxeratuta dagoen gizon bati erabat eskaintzea espero dute harengandik. Ulertzen ez dutela dioten ahaideen eta lagunen komentario hurbilez mozorrotutako eskakizunak heltzen direnean, Itxaso argia da: *“Garbi esan nien beste lehentasun batzuk jarri nituela momentu hartan eta ez nuela behar ulertzea, baizik eta onartzea”*.

Espero den rola betetzen duten beste emakume batzuk ikusten ditu Itxasok. Haietariko batzuekin hitz egiten du: begira zer egiten ari naizen, agian zuri balioko dizu. Baina pisua handia da eta inguruan dituenetatik batek ere ez du urratsa egiten. Denborarekin eta bere buruarengan egindako lanari esker, Itxasok bere burua entzun, arakatu, sentitzen du. Bere burua aurkitzen du. Gehiago. Eta epeldu egiten da. Eta berotasun horrek minarekiko sentikorragoa egiten du. Bere minarekiko. Eta beste pertsona batzuen minarekiko. *“Ezin duzu herri batekiko militantzia eukin, ezin duzu beste 51 persona batekiko militantzia eukin, zure buruarekiko militantziarik ez baduzu”*.

## Aurrera egiteko kokatzea

Ozeanoaren beste aldean, Dora Mirónek ere bere burua aurkitu beharra du. Dora gaztea da Gizarte Lanean lizentzia lortzen duenean eta komunitate indigena batera lan egitera doanean, Guatemalako Hiritik 80 km-ra. Han geroago bere bikotekidea eta bere seme-alaben aita izango dena ezagutzen du: ikasle-buruzagia izan den arkitekto bat da, Dora lan egiten ari den komunitatera doana hura berreraikitzeke, jada pobrea zen zona bat suntsitu duen lurrikara baten ondoren. Dora eta bere senarra komunitatean geratzen dira eta maila guztietan inplikitzen hasten dira: politikan, eliza katolikoan, proiektu komunitarioetan...

80ko hamarkadan, Espainiak Guatemalan duen enbaxada erretzen dutenean, alarmek jotzen dute. *«Horrek gatazka armatuaren hasiera markatu zuen eta oso gogor zetorrela ikusi genuen. Izan ere, horrelako zerbait Guatemalako ez zen lurralde batean egiteko gai izan baziren, zer egin ote zezaketen Guatemalan?»*. Jende askorentzat, Dora eta bere bikotekidearentzat ere, errepresioa eta jazarpena hasten dira. Doraren mundua erabat aldatzen da. 1981ean, armadak Doraren gurasoak eta aitagarreba bahitzen dituzte, egiatan Dora eta bere senarra bilatzen ari direnean. 1982. urtearen hasieran, bikotekidea atxilotzen dute. Landa sarraskiz betetzen da eta Dorak Mexikon erbesterratu politikoko gisa bizitzeari ekiten dio, bi seme-alaba oso gazte berarekin daramatzala.

*«Lagun espainol batek, ia nire ahizpa denak, Guatemalan ezagutu nuenak eta ama ere Espainiako enbaxadan galdu zuenak, eta nire senarraren bidez ezagutu nuenak, bera ere arkitektoa zelako, **nire bi seme-alabak Espainian eduki zituen urte batzuek, nik lehenik neure burua aurkitzen nuen bitartean. Mexikon nola kokatu ikusi behar nuen»***.

Dorak dioenez, bihotzak ez du joaten uzten, ez dio sufritzeari uzten, sufrimendu kolektiboa delako. Eta, hala eta guztiz ere, urte horietan, Dorak bere bidea egin du gorputzak eta bihotzak minak jasan ditzaten eta arnasa hartzeko leku gehiago egon dadin. Bere indar politikoa ere handitu du, bere denboraren zati



handi bat eskaini baitio eta oraindik ere eskaintzen baitio. Dora Rigoberta Menchúren lankidea, laguna eta idazkari pertsonala izan da. Dorak beste emakume batzuei laguntzen die eta alderdi politiko batean militatu ere egiten du. «*Nire ahaideen desagerpena daukat nirekin eta haiekiko konpromisoa ere bada, haiek erreibindikatzeiko konpromisoa*».

# Gizonen luzapena

## Egun bera

1993ko uztailaren 5ean, ETAk Ikusi enpresako Julio Iglesias Zamora ingeniari gipuzkoarra bahitzen du. Bakearen Aldeko Koordinakundeko kide den Susana erakundeko bere lagunekin lokal batean ixten da, protestaren eta elkartasunaren erakusgarri. Borondatezko itxialdiak bahiketak adina irauten du: 116 egun. Urte batzuk geroago, 1997an, ETAk Ermuko PPko zinegotzia, Miguel Ángel Blanco, bahitzen du. Susana ez da egun hori eta hurrengoak gogoratzen duen bakarra.

Bibianak 14 urte dauzka 80ko hamarkadaren hasieran, berak eta bere familiak Palentzia utzi eta Barakaldora mugitzen direnean. Handik gutxira, Guardia Zibilaren pabiloi batean bizitzeari ekiten diote, Algortako kuartelean. Une hartan, mailaz igotzen diren guardia zibilak Euskal Herrian gutxienez urte bat pasatzera behartzen dituen araudi bat dago. Eta haren aita haietariko bat da.

Eskolako lehen egunean, ikaskide batek, bera ere guardia zibil baten semea baita, Bibiana ezagutzen du eta ozenki oihukatzen du: «*Hara! Hau nire bizilaguna da*». Bibianak azaltzen du: «*mutila han jaioa zen, mundu guztiak zekien guardia zibil baten semea zela, baina denen parekotzat jotzen zuten eta arazorik ez*». Hala ere, harekin ez da gauza bera gertatzen eta egunero jazarpena pairatzen hasten da: inor begiratzen ari ez denean bularretakotik tiratzen diote eta gauzak jaurtitzen dizkiote. Azkenik, Bibiana institutura pasatzen da eta gauzak aldatu egiten dira. «*Institutu berrian Bakearen Aldeko Koordinakundea zegoenez eta nire anaia nagusia han ospetsua zenez, etapa hori nahiko lasaiagoa izan zen*».

Nolanahi ere, Bibianak bere aita nor den ezkututzen jarraitzen du. Ikaskide pare batek pentsatzen du Bibiana karabana batean bizi dela eta horrek eragiten dion lotsagatik ezkututzen dituela hainbeste gauza. Beldurrez, Bibianak egia kontatzen die. «*Zure aita, guardia zibila? Hara! Nirea, galegoa*». Erantzunak harritu eta lasaitu egiten du, baina beldurak bere horretan jarraitzen du.

Eta, beldurra gorabehera, Bibianak irrika handi bat dauka, zer gertatzen ari den ulertzen saiatzera daramana. «*Jendea konbentzitzen saiatzen nintzen preso politikoak ez torturatzeko protesta-gutunak idatz zitzaizten*». Horrek eztabaida asko sortzen dizkio etxean. Amarekin eta anaiarekin. «*Bitxiki*», azaltzen du berak, aitarekin ez.

«Ni ados egon naiz borroka politikoarekin, ez borroka armatuarekin. Baina borroka politiko hori oso legitimoa da. Nik gatazka baten barruko gatazka bat neukan.

Hobekien ulertzen ninduen aita zen. Berak esaten zidan ez zela hain erraza, baina ez zen inoiz nirekin haserretzen arlo politikotik borrokatzeaz zer ulertzen nuen adierazteagatik».

Bibianaren baitako gatazka lagun baten anaiarekin irteten hasten denean areagotzen da. Mutilak, azkenean, 20 urte ematen ditu kartzelan, banda armatuarekin kolaboratzeaz akusatuta. «*Dualtasun hori daukat. Izugarri maite dugu elkar, nahiz eta berak jakin nire aita guardia zibila zela. Eta nik badakit berak aukera eduki balu aita hilko zukeela*». Bat-batean, haren laguna, mutil-laguna izan denaren arreba, eta Bibiana bera elkarren aurrean kokatzen dira isilaldietan. Aurrez aurre. «*Uste dut harekin moldatuko nintzatekeela hobekien. Uste dut berak zuen beldurra ulertzea lor nezakeela eta berak nik nuen beldurra ulertzea lor zezakeela*». Gaur egun, ez dute oraindik elkarrizketa hori eduki.

Bibiana bere beldurraz mintzatzen denean, institututik irtetea itzulinguru bat egiteaz mintzatzen da, inork ez dezan jakin non bizi den. Donostian ikasten ari denean telebista konpontzera ikaratuta joateaz mintzatzen da, denda beti sailhesten duen kale batean dagoelako. «*Inork ez zekien nor nintzen, baina aurpegian “nire aita txapelokerra da” idatzita neukalako sentsazioa nuen*». Institututik itzultzean balazuloak dituen gizon bat lurrean botata aurkitzean sentitzen duen beldurraz ere mintzatzen da. Hain zuzen ere hil berri dutenean iristen da eta gizonak aurpegia ezagutezina dauka. Minutu batzuk behar ditu ulertzeko lurrean dagoena ez dela aita, haren lankideetako bat baizik. Kuarteleko emakumeek Bibiana bilatu, besarkatu eta handik aldentzen dute. Gizon batek ere ez dio ezer esaten.

Uztailaren 13an bere anaiaren urtebetetzea da. Bibiana eta bere familia urtebetetzea ospatzeko erosketa batzuk egitera doaz. Autoz itzultzean, beti bezala, garitan gelditzen dira beste guardia batek ispilu batez autoaren azpiak berriki ditzan, bertan lehergairik ez dagoela ziurtatzeko. Prozesua bukatzean, eta kuartelean bi egunez erabateko isiltasunean egon ondoren, Bibianak entzuten du aitari zera esaten diotela: «*aurkitu dute*». Bibianak ez du gehiagorik behar jakiteko Miguel Ángel Blanco erail dutela.

Bibianak isilik egiten du negar. Eta horrelaxe egiten du bere familiak ere. Bibiana altxatu eta gertatutakoagatik protestatzeko manifestaziora doa. Bilbora doa. Bibianarentzat katarsi bat eta une askatzaile bat da. Lehenik sentitzen eta pentsatzen duena honako hau da: «*Arraioa, zenbat jende dagoen ez lidakeena kalterik egingo nik orain oihukatuko banu “nire aita guardia zibila da!”*».

Une horretan, Itxaso Huelvatik itzultzen ari da, Kepa bisitatzetik. Kepa kartzelan egon den urte guztietan bakarrik egin duen bidaia bakarra da. Sevillaraino autobusean joatean eta gero Huelvaraino heltzeko hiriarteko autobus bat hartzean datza bidaia. Normalean, han laguntza-komite batek itxaroten du, Kepa bisitatu ondoren harekin bazkaltzen duten eta itzultzeko autobusa hartzera laguntzen duten adiskideak. Itxaso autobuseko eskailera igotzen ari denean, bidaiari batzuk, asaldatuta, elkarrekin hitz egiten entzuten ditu: *hiltzaileak, zer da hau?, koldarrak*. Eta orduan badaki: Miguel Ángel Blanco erail dute.

Itxaso berehala jaisten da autobusetik, urduri, eta komiteko pertsonengana jotzen du, oraindik ez baitira joan. «*Hil dute*» esaten du. «*Itxaso, lokartu*», erantzuten diote. Eta Itxasok horixe egiten du. Berririo igo eta lo-plantak egiten ditu beldurrak hartua duela sentitzen duen bitartean. Sevillako geldialdian, betiko tabernara doa eta zerbitzariak esaten dio beste ahaide batzuk paseatzen ari direla. Ez zuten hain goiz espero. Sevillako komitearekin batera ahaide gehiago heldu arte, Itxasok ez du babesgabetasun-sentsazioa gainetik kentzen. Baina beldurrak badirau. Kepagatik. Berarengatik.

“Inpotentzia ez zaudelako en tu zona de confort; ez duzu babesa inondik sentitzen. Gero, bai: hasi zenean jendea etortzen, lasaitzen hasten zara ya ez zaudelako bakarrik. Bakarrik zaudenean, faltan duzu arrope hori. Bidaietan zerbait izan badugu beti, izan da arropea”

Ziurrenik, badaude Bibiana eta Itxaso banantzen dituzten gauza asko. Eta lotzen dituzten beste asko. Erraietan sartutako beldurraz gain, biek, emakumeak izanda, oso lotura sakona eduki dute gizonekin, hots, gatazkaren protagonista nagusiekin. **Gizonen rolak zuzeneko inpaktua du emakumeengan, sistema patriarkalean haien luzapentzat jotzen direlako.**

## Bizirik dirautenak

Argituz erakundeak 2016. urtean argitaratu zuen txostenaren arabera (*Violencia de motivación política contra las mujeres en el caso vasco*), 1960tik 2014ra 78 emakumek pairatu dituzte bizitzarako eskubidearen urraketaren askotariko formak indarkeria politikoaren ondorioz. Kasuen % 70ean, **indarkeria ez zegoen zehazki haiei zuzenduta**. 54 emakumek beren ahaideei zuzendutako eraso planifikatuetan galdu zuten bizia, bonben ondorioz, merkataritza-lekuetan edo leku publikoetan egindako bereizkuntzarik gabeko erasoetan eta Guardia Zibilaren kuarterl-etxeetarako oldarretan.

Etixerat elkarteak ere sakabanatze-politiken ondorioz gertatutako trafiko-istripuen kopuruari buruzko datuak ematen ditu eta, datuak sexuaren arabera bereizten ez dituen arren, 16 pertsonak galdu dute bizia. Nolanahi ere, jakina da Itxasok bezala emakume askok egin dietela aurre etengabe distantzia luzeak egiteak dakartzan arriskuei eta, sozializazioagatik eta emakumeei esleitzen zaien rolagatik, **haiek direla familia-egitura bat mantentzen saiatzen direnak**.

Emakumeak gutxitan agertu dira pertsona agente gisa eta gatazketako eta gerretako protagonista gisa historiako kontakizun handietan. Hala ere, Lourdesek azaltzen duen bezala, Guatemalan «*beharbada, zenbakitan, emakume gutxiago hil zituzten, baina gehiagok pairatu zuten indarkeria. Sufritu zituzten torturetatik bizirik atera diren emakume gehiago daude*». Izan ere, emakumeak albo-biktima gisa irudikatzen diren arren, berariazko indarkerien hartzailak ere badira.



# Sexu-indarkeria globala

Ez du axola Atlantikoaren zein aldetan dauden. Ezta zer gatazka-mota edo gerra-mota den ere. Errealitatea da sistema patriarkalak beti gordetzen duela emakumeentzako berariazko indarkeria bat. Kontakizuna «etsaien» eta «lagunen» logiketan sartzen denean ere badago indarkeria. Barruan eta kanpoan.

Gloria izeneko Santa Lucía Cotzumalguapako indigena oraindik gaztea da gurasoak galtzen dituenean eta anai-arrebez arduratu behar du, bera nagusia delako. Kontatzen duenez, gerran destakamentu militar bat instalatu zuten haren komunitatean. Soldaduek neskei jazartzen diete. Gloriak, dakienaren arabera, abusuak pairatu dituztenengana hurbiltzen da. Begiratzen die, hitz egiten die. Baina trauma handiegia da eta ezin du ezer egin. Gaur ere, neska horietako batek 45 urte dituela, zaila da harengana heltzea.

«Abusuen efektua ezaguna da, baina bolumena ez. Ai, Jauna! Milaka izan ziren. Eta, noski, ez zuten esaten [...]. Horretaz gain, emakumez abusatzeaz gain, mehatxatu egiten zituzten. Eta ezer esan ezin izateak dakarren karga soziala daukazu, zerren, noski, "bortxatu bazintuzten, gustatzen zaizulako, bilatu zenuelako [...]". Kalte psikologiko horretaz guztiaz gain, karga soziala oso gogorra da herrialde honetan. **Karga hirukoitza zen».**

Lourdesez, zeinak gerran altxatu ziren eta bizirik dirauten emakumeekin lan egiten baitu gaur egun, oraingoz oso espazio txiki eta seguruetan hitz egiten hasten ari diren emakume horien kontakizun ugari dauzka. Suharki baieztatzen du: «*gerran emakumeen aurka egindako zuzeneko eraso estatua-kestioa zen*». Lourdesez azaltzen duenez, emakume askok indarkeria zuzenean beren gorputzetan sufritzen dute, baina **badago etengabeko indarkeria psikologiko bat ere, sexu-indarkeriaren mehatxupean**, emakume guztiei mezu bat bidaltzea xede duena.

«Hilerokoa zuen emakume bat etxetik kolpeka ateratzera etorri ziren, makila bat hartu zuten, zuhaitz-zati bat ziurrenik, eta sartu egin zioten. Mendian botata utzi zuten. Imajinatu hori zer mezu den... [...] Emakumei eraso egitea gerra-arma bat zen. Emakumei bularrak moztu ere mozten zizkieten eta emakume haurdunei urdaila irekitzen zieten».

Zenbait emakume guatemalarrak, Marta eta Dora barne, kontatzen dute altxatutako emakumeek gizonezko lagunek eragindako indarkeria eta jazarpena pairatu zituztela.

«Ez nintzen lerro armatuetan egon, kanporago egon nintzen, baina nik pentsatzen dut eta, gerrilla-indarretan egon ziren beste lagun batzuekin hitz egin ondoren, badakit haietaz aprobetxatzen zirela. Gerra batean bizi ziren eta egin eta desegin egiten zuten...  
"Lagunak" zirela esaten zuten, esan bai... Gertatu egiten zen. Emakumeek gerrillako lagunek eta etsaiek eragindako indarkeria sufritu zuten».

Euskal Herrian ere, elkarrizketatuetako batek sexu-erasoak jasan dituela aitortu du:

*«Ba hori ere bai, eta esperientziagatik diot. Matxo iberikoak ziren [...]. Hori izugarria zen, gogorra zen. Nik uste dut egiturazko indarkeria zela, berdin zela non zeunden, baina ni leku askotan ibili nintzen».*

*Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte* (2021) liburuan, Olatz Dañobeitia Ceballosek ezker abertzaleko emakumeen bizipenak aztertzen ditu eta, atal batean, elkarrizketatutako emakumeetako batzuek polizia-etxeetan edo kartzelan pairatu dituzten sexu-indarkeriari eta torturei heltzen die. Eta oso gauza garrantzitsu bat esaten du emakumeen gorputzei buruz eta gorputzok gatazkaren kontrako aldeetan dauden gizonen arteko **komunikazio-kanala bihurtzen diren moduari** buruz:

*"Sexu-erasoa jasan duen emakumearen gorputzaren bidez, gizonen moralari eraso egiten zaiola, erasotutako emakumea mendekotasun-harremanean duen gizonen moralari, alegia. Hori dela eta, gatazka armatu eta gudetan, alde bietako gizonen arteko komunikazio-kanala bihurtzen dira emakumeen gorputz jazarriak. Hortaz, bistan da mezu horiek ulertzeko lengoaia sinboliko berbera hitz egin behar dutela. Kasu honetan, emakumeen sexualitatea ulertzeko modu berbera izan behar dute. Ondorioz, ulerkera bera konpartitzeak egiten du biolentzia sexuala [...], nazio edo komunitate politiko-kulturala apurtzeko helburua duen estrategia politiko-militarreko tresna". (84)*

Sexu-indarkeria gizonentzako eta emakumeentzako mezua da. Gizonentzat, «haien jabetzan» «haien luzapenean», izaki izan beharrean gauza den izaki horretan egindako zauri bat da. Emakumeentzat, beren lekua zein den oroitarazteko modu bat. Isilak. Otzanak. Pairakorrak. Ezkutatuak. Ikusezinak. Zerbitzariak. Beren indarrak, balioak eta duintasunaz gabetuak. Zeregin bat bakarrik, rol bat, zeina gainera indarkeriaren bidez suntsitzen den. *Ez zara zure lekua betetzen ari eta orain jakingo duzu zer den emakumea ez izatea. Gainerakoentzat argi gera dadila.* Emakumeen gorputzen aurkako indarkeriaren bidezko botere eta menderatze maskulinoaren erakusgarria da. Desparekotasuna, indarkeriaren higarazlea.

# Hau ez da gure bakea

“Ikusten da egoera biolentoen aurrean, emakumeek jaso izan dutela gizonen amorru eta biolentzia beraien gorputzetan: bortxaketak, sexu-harremanak aldatzen direla modu biolentoago batera ere bai”

(Maite, Euskal Herria)

Marta gurasoekin doa *lurra borrokatzera*, berak dioen moduan, oihanera. Lantzeko lurra eta bizitzeko ura behar dituzte. Inolako jarduera politikotan nahasita ez dauden arren, Marta eta haren familia markatzen dituzte. Armada lehen kooperatibak sarraskitzen hasten da eta berriz beste nonbaiterako bidea hartzea beste erremediorik ez zaie geratzen. Martak 17 urte dauzka Mexikora heldu eta saltzeko ogia laberatzten hasten denean. Lehenik mугan egoten da. Gero, errefuxiatuak Mexikoko beste zona batzuetara doaz: Campeche, Mérida eta Quintana Roo.

Martak Campechen hasten du bizitza berria, senarrarekin batera. Ogia egiteari utzi eta beste emakume batzuekin hamakak ehuntzeari ekiten dio. Martak daukan berezko karismaren ondorioz, beste emakume batzuk harekin ehuntzera animatzen dira. Beren diru-sarrerak sortzera. Hainbeste non moja baten bidez hamakak esportatu eta munduko beste leku batzuetan saltzea lortzen baitute. Eta, bitartean, Martak egunero zera entzuten du: *Sudurluzea zara, gero. Zergatik irakasten diezu beste emakume batzuei? Etxea alde batera uzten ari zara*. Senarraren ahotsa da.

Gau batean, ahotsa kolpe bihurtzen da. Senarra mozkorra dago eta mehatxu egiten dio. Martak semea hartu eta kamioi batean Quintana Rooa alde egiten du, hor ama eta aita baitauzka. Komunitatean hezkuntza-sustatzaile bat behar dutela jakinarazten diote eta Martak maistrarekin hitz egiten du lanposturako prestatzeko asmoz. Ez dute hezkuntza-sustatzaile bat bakarrik behar, bi baizik. Haren senarra agertzen da. Bera izango da bestea.

«Hor hasi zen nire martirioa. Beti makurtuta joan behar izaten nuen, jelosia jasan eta etxera eztabaidatzen itzuli. Gatazka bat izan zen».

Marta etxera bere lehen soldatarekin heltzen da eta senarrak dirua lurrera botatzen du. *Bota kaka-diru hori, ez dizu-eta ezertarako balio, horretarako naiz ni gizona, biok mantentzeko. Horra joaten zara gizonak begiratu zaitzaten, hori ez da emakume baten lana*. Une horretatik aurrera, Martak bere buruarentzat eta bere seme-alabentzat lan egiteko erabakia hartzen du. Lanak zoriontsu egiten ez duen arren —edo hain zuzen ere horregatik— eta senarraren tratu txarra gero eta jasangaitzagoa den arren, arratsaldero emakumeekin elkartzten da. Quintana Roon ere bai.

Arratsalde horietako batean neskato bat heltzen da, jantzi tipiko indigenetako bat daramala. Errefuxiatua dela eta berak ere ikasi nahi duela dio. Juana deitzen da, baina hori ez da haren benetako izena. Izen askotatik bat da. Egun batean, Juana Martaren etxean azaltzen da:

- Ikusten dut emakume asko dauzkazula.
- Ba ez dira nireak, ehuntzen ikasten ari gara, besterik gabe.
- Nik egoitza Campechen duen barazki-erakunde batean egiten dut lan. Chiapasen, Motozintlan eta DFn hiru emakume-talderekin lan egitea proposatzen dizut. Badakit 600 peso irabazten dituzula. Guk 3.500 peso emango dizkizugu.
- Zergatik hainbeste, nik ez badut ezer egingo?
- Leku batetik bestera joaten lan egingo duzu.

Martak oraindik ez daki zehazki zer egin beharko duen. «*Baina nik dirua entzun nuen, DF entzun nuen eta neure buruari esan nion: "honekin"*». Martak ez daki nola ihes egin senarrarengandik. Kanpora irten eta itzultzen den lehen aldian, senarrak ez du bakean uzten.

Denborarekin, Martak deskubritzen du Juana ORPA (Organización del Pueblo en Armas) erakundeko komandantea dela. Juanak azaltzen dio buletinak, sendagaiak, botak eta, batzuetan, armak pasatu behar dituela mugara. «*"Arma" entzun nuenean, zur eta lur geratu nintzen. Zer egingo dut orain? Non sartu naiz?*». Barrezka, biktima izan beharrean bizirik dirauen eta gardena den norbaiten indarrarekin, aitortzen du: «*Gero pentsatu nuen: "Nik arma bat hartu eta senarrari tiro bat sar ote diezaioket?"*». Marta DFra doa eta aurkeztu egiten dute. Han hasi zen ikasten nola egin hurrengo urratsak.



# Gatazka ikusezina

2011ko urriaren 20an, ETAK banda armatuaren behin betiko etena iragarri zuen. Egunkariak indarkeriaren amaieraz hitz egiten zuten titularrez bete ziren. Kaleetako hormetan ere beste mezu bat agertu zen, Bilgune Feministak sinatua: "HAU EZ DA GURE BAKEA". Sistema patriarkal batean ez dago emakumeentzako bakerik.

Bibianak bere esperientziaren bidez adierazten du.

«Une hartan Euskadin indarkeria terroristaz bestelako indarkeriarik ez zegoelako sentsazioa neukan. Ni, emakume gisa, ez nintzen inoiz sentitu, adibidez, Alacanten bizi nintzenean sentitzen nintzen bezala. Alacanten gauez bakarrik irtetearen beldur nintzen. Euskadin, Donostiara joan nintzenean, esate baterako, unibertsitatean ikastera, eta inork ez zekienean guardia zibil baten alaba nintzenik, emakume gisa ezer gertatuko ez zitzaidalako sentsazioa neukan. Jendeak guardia zibil baten alaba nintzela baldin bazekien izan nitzakeen arazoak. Errealitatea ez da ezin zitzaidala ezer gertatu edo horrelako indarkeriarik ez zegoela, baizik eta beste indarkeriak gainerakoak itzaltzen zituela. Hain presente zegoen eta biztanleria hainbeste banatzen zuen, non besteaz ez baitzen hitz egiten. [...]. Dena zen gatazka».

Gatazka bakarra. *Gatazka. Gerra*. Kontakizun hegemonikoak, Martaren eta Bibianaren kontakizunek erakusten dutenez, ezkututzen du indarkeria emakumeentzat beti sistemikoa dela. Eta, hain zuzen ere, emakumeentzako bakea ez dela heltzen ez gerra baino lehen, ez gerrak iraun bitartean, ez gerraren ondoren.



# Emakumeak, gatazkak eta rolen konplexutasuna

## Amak

### **BABESLEAK**

Guatemalako gerra bete-betean, ihes egin behar duten familiak daude. Batzuk herrialdearen barruan mugitzen dira, zona batetik bestera. Beste batzuk muga zeharkatu eta erbestera doaz, Dora eta Marta bezala. Badago beste talde bat, mendira igo beste aukerarik ez daukana. Hori da Luisaren kasua (izena asmatu dugu ez dakigulako). Luisa eta haren senarra mendira igotzen dira babesa hartzeko eta ezkutatzeko. Aldi horretan, Luisa birritan geratzen da haurdun. Erditu ondoren, bera irteten da egoera nola dagoen ikustera eta berak ematen dizkio jarraibideak senarrari. *Ordu honetan itzultzen ez banaiz, beste leku honetara joan behar duzue. Nik aurkituko zaituztet.*

### **SEMEAK ESKAINTZEA: BORROKAGATIK EDO BABESAGATIK PAIRAKORRAK.**

Martak ORPAREkin lan egiten jarraitzen du tarte batez, baina badago inola ere onartzen ez duen zerbait. Ama gisa eta konbentzitzeko gaitasuna duen emakume gisa, beste emakume errefuxiatu batzuk beren semeak berriz Guatemalara bidaltzera limur ditzala nahi dute, semeok herriaren eskubideen alde borrokatu daitezen.

«Nire lana emakumeekin egotea ere bazen, Guatemalako gatazkako borrokarako kontzientziatzeko. Emakumeak kontzientziatu? Zer esateko? "Emakumeak, har dezagun arma bat eta goazen Guatemalara".

Ezin da hori egin. Emakume horiek bazetozen jada negarrez eta indarkeria-historiekin. Ez. Neure buruari esan nion neure baitan

ez nuela konplizea izan nahi, baina lan egin eta zer erein nahi genuen pentsa genezakeen.

Zati hori ezin izan nuen bete. Nik emakumeak neu banintz bezala hartzen nituen. Pentsatzen nuen seme bat edukiko banu eta Guatemalara bidaltzeko kontzientziatuko banindute... Ez nuen hori egin nahi izan».

Olatz Dañobeitia Ceballosek ere amaren zereginaz hitz egiten du *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte* liburuan. **Ama semeak borrokarako eskaintzen dituen emakume pairakor gisa. Figura horrek, gainera, rol horretatik kanpo espazio publikoa hartzen duen emakume politikoaren figurarekin talka egiten du:**

“[...] Ezker Abertzalearen genero-ideologiak amak goraiatu zituela esan dezakegu, baina betiere abertzaletasunaren ikuspegitik, nazio eta borrokarentzat semeak eskaintzen zituen figura gisa. Horregatik, hautu hori egin ez zuten amak itzalean geratuko dira. Hamiltonen (2007) arabera, ama-figura horren goraiapatzeak itzal egin ziren bestelako ekarpena egiten ari ziren beste emakumeei [...]. Hau da, amatasunaz beste, militantzia politikoan jardun duen emakumeari eragin dio amaren figurak”. (78)

Guatemalako gerran, sistema militarrean parte hartzea nahitaezkoa zen. Armadak kamioiak instalatzen zituen eta gazteak herrietan eta herrixketan bilatzen zituen. Gazte batzuek uko egin zioten eta, beren borondatez eta arrazoi ideologikoengatik, azkenean gerrillan sartu ziren. Hala ere, gerrak aurrera egin ahala, jazarpeneko eta nahitaezko desagerpeneko kasuek gora egin zuten. Hala, emakume askok, ama etsiek, semeak zerbitzu militarra egitera animatu zituzten, nahiz eta horrek esan nahi haien mentalitatea eta pentsaera aldatuko zirela; izan ere, **desagerpenetatik eta hilketatik babesteko modua zela uste zuten.**

## **DENA ERORTZEN DENEAN: SOSTENGATZAILEAK**

«Nire ama sostengatzailea izan zen; izan ere, nire aita alkoholean galdu zela ikusita, nire ama zen bere alaben biziraupena lortzeko modua. Zortzi ginen eta, emakume guztiek bezala, gatazkan bizitza sostengatu zuen, bere seme-alabak babestuz».

(Lourdes, Guatemala)

Esterren aita katekista eta Eliza Katolikoaren hitzaren ordezkaria da Guatemalako komunitate batean. Eliza zerbitzatzen 30 urte baino gehiago emanak dituenean, apaiz batekin dagoela eramaten dute. Hurrengo egunetan, Esterren ama, zeina inoiz ez baita espazio pribatutik irten, kartzelak, ospitaleak eta segurtasunpostuak bisitatzen, bakarrik bidaiatzen eta jende askori galderak egiten hasten da. Ez Ester ez haren amak ez dute inoiz berriro ikusi. Esterrek 20 urte dauzka herrialdeko beste leku batera mugitzen direnean. Esterren ama biktimen eta desagertutakoen ahaideen talde batekin elkartzeko da eta alaba darama, zeinak

urte asko geroago bilatzen jarraitzen baitu. Gaur egun, amak utzitako ikaskuntzaren ondoren, **Esterren min pertsonalak transzenditu egin du eta kausa kolektiboa eta ekintza politikoa bihurtu da.**

## Urratsak etxetik kanpo

Esterren aita desagertzen denean eta Ester eta haren ama beste leku batera doazenean, biek bilatzen dute diru-sarrerak lortzeko modua. Desagerpenaren minarekin eta gizonaren bilaketarekin bateragarri egiten duten zeregin zaila da. Dena den, Esterrek graduatzea eta lan egitea lortzen du. Gainera, amak eta berak kide diren Elkar Laguntzeko Taldearekin bateragarri egin dezakete lana.

«39 urterekin, oraindik ez daukat ez egiarik ez justiziarik. Orain nire borrokak amaren oroitzapenean jarraitzen du, egiaren zain zendu baitzen. Orain nire borrokak haren oroitzapenean jarraitzen du».

Marta aipatu dugunaren beste adibide bat da: etxeko espazio pribatuan soilik egotea ahalbidetzen zaien emakume bat, kanpora irteten dena gerra bete-betean egon arren, beste herrialde batean errefuxiatuta egon arren eta senarraren tratu txarra behin eta berriro jaso arren. Marta hamakak ehuntzen hasten denean, beste 5 emakumerekin bakarrik ehuntzen du. Lana nola egin ondo ikasi ondoren, Martak eta haren lankideek beste 5 emakume gonbidatzen dituzte. Horrela, 80 emakumeko talde bat eratzen da, zeina hamakak esportatzeko negozio batean diharduten ehuleen sarea bihurtzen baita azkenean.

## Ekintza ideologian

### **INDARKERIAREN ERABILERAREKIKO HARREMANA**

Miren ETako kidea da 1978ra arte eta ikasle-propagandarekin lotutako ekintzetan parte hartuz hasten da. Haren anaiak ere kausan inplikaturik daude eta espetxeratu egiten dituzte, bakoitza leku batean. Mirenek alde egin behar du. Beste aldera, berak dioen moduan, eta komandoetan parte hartzen du. Are gehiago, 1976an, Franco hilda dagoela, Segoviako ihesaldiko kanpo-komandoko partaide da eta, gero, ihes egitea lortu zuten bost pertsonetako bat. «Guk borrokalari antifrankista nazionalistak ginen».

«Bizi genuen egoerak baldintzatutako erabaki pertsonala izan zen». Nik frankismoa garaitzeko borrokan hor egoteko betebeharrak sentitzen nuen, argi eta garbi. [...] Nik ez nuen eduki nire adineko jende guztiak eduki zuen gaztaro berbera. Lerro horretatik genbiltzanok bizitza paralelo bat geneukan».

Mirenek sindikatu-borroka, herritar-mugimendua eta mugimendu feminista dauzka gogoan. Hala ere, ez da oroitzen inguruan edo erabakiak hartzeko lekuetan emakumeak ikusi izanaz. Komentario eta indarkeria matxistaz, berriz, oroitzen da, zalantza-izpirik gabe.

«Nire senarra kartzelan egon zen eta, lehen egunean irten zenean, bere lagun minak esan zion: “Badakizu Miren beste aldean mundu guztiarekin oheratzen dela?”. Hori gogorra da, e? Kartzelatik irten berri den gizon bati. Begira noraino heltzen zen emakumeekiko kontua».

Bere ustez ahotsek lekua izango duten beste bide batzuk zabaltzen direnean uzten du Mirenek erakundea. Hurrengo urteetan, ETAk beste norabide bat hartzen duenean, Martak oso txarto pasatu zuela adierazten du. «Ni oso txarto sentitu naiz, izugarri txarto, biktimario sentitzen nintzelako. Eta ez nintzen horrelakorik».

Olatz Dañobeitia Ceballosen ikerketan (2021), zeinak ETako kide izan diren emakumeen lekukotzak bildu eta kokaturiko ezagutzan oinarrituta horri buruzko analisia egiten baitu, zera azaltzen du:

“ETako emakumeen errepresentazioak auzitan jartzen ditu eta estereotipo sexualez beteta daudela adierazi. Ondorioz, emakumeak biktimatzat eta agentzia gabekotzat aurkeztu ohi dira. Kontrara, berak ikertutako emakumeek esplizituki adierazi zioten inortxok ez ziela ziria sartu, ezta behartu ere, funtsean, motibazio politiko eta pertsonalengatik sartu zirela ETAn, eta ez bikote-gizonen eraginez”. (63)

Azterketa honen hasieran Charlotte Cordayren historia kontatu da: 1793an Jean-Paul Marat jakobinoa ideal politikoengatik erail zuen, baina, gillotinatuta zutenean, jakobinoek gizon batekiko maitasunari esleitu zioten ekintza. Mendeak igaro dira eta oraindik ere zalantzan jartzen dira emakumeek indarra erabiltzeko dituzten motibazioak, gizonenak ez bezala.

Olatz Dañobeitia Ceballosen azterketan, badago elkarrizketatutako emakumeetako baten lekukotza bat, zeinak orobat aipatzen baitu nolakotzat hartzen dituzten emakumeak, alegia, ez dituztela bakartzat eta agentziaduntzat, agentzetzat, jotzen, gizonen mendekotzat baizik:

«[...] beren kaken gordetzaileak izateko erabiltzen gintuzten. [...] Are gehiago, gure epaia halaxe da. Guk mutilek baino kondena laburragoa daukagu. Gu “kolaboratzaileak” omen garelako, eta egia da». (71)

## **GATAZKAN ESNATZEA**

Guatemalan biztanleria zibilak eta, batez ere, komunitate indigenek oso jazarpen larria pairatu zuten urteetan. Horren ondorioz, emakume askok, nahiz eta ikuspegi ideologikorik ez eduki, familiekin mendira ihes egin zuten babesa hartzeko. Emakume horietako askok, azkenean, armak hartu zituzten. Lourdesek kontatzen du:

«Biztanle guatemalar gehienak indigenak direnez, altxatu ziren emakume gehienak ere indigenak ziren. Batzuk familia babesteko beharragatik, eta oso gutxi ideologiagatik. Indigenak ez ziren emakumeek askoz ere argiago zeukaten zergatik ziren talde subertsibo horien kide. Haiek ulertu egiten zuten. Hala ere,

beste emakume batzuek armak hartu zituzten eta denborarekin jakin zuten zehazki zergatik zeuden mendietan, zeregin bat betetzen eta gatazka-egoera horren aurrean beren giza eskubideen defentsan parte hartzen».

## **PARTAIDETZA POLITIKOA ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN OKUPAZIOA**

Dorak kontatzen du Guatemalan emakume askok parte hartu zutela gerran zenbait mailatan. «Zuzendaritzan ere bai, baina oso gutxi, maila horretako buruzagi gehien-gehienak gizonak ziren eta. Erdi-mailako arduradunen artean ere izan ziren emakume batzuk, baina oso gutxi. Borrokalarien mailan gehiago izan ziren, alegia, armak hartu zituzten eta unitate militarren parte izan ziren emakumeak. Baina emakumeen partaidetzarik handiena **komunitateetan** izan zen, **babes-oinarri gisa**. Maila horretan, [emakumeen] **partaidetza oso oso handia izan zen**».

Gloriak gaineratzen du oinarri horietan zeuden partaideak askotarikoak zirela. Izan ere, Guatemalako kosmobisio berezia duten zenbait herri biltzen ditu eta, ondorioz, proposamenak desberdinak dira, «beharrak, sufritzeko moduak eta indarkeriari aurre egiteko moduak ere desberdinak direlako». Emakume indigenek eta herri mestizoek beste modu batean sufritu zuten gerran eta berriazko indarkeria bati egin zioten aurre, zeinak homogeneizatu egin baitzituen eta aniztasun guztia alde batera utzi baitzuen ikuspegi eta proposamen politikoetan.

*Bakearen Aldeko Koordinakundeko* Susanak ere esaten du Euskal Herriko gatazkan emakumeek «inurritxoena» egiten zutela bere erakundearen, nahiz eta gehienetan aitortza publikoan atzean geratu. Susanak Maixabel Lasa ere aipatzen du, gatazkan alargun geratu ziren emakumeen aitortzarako lehen bulkada eman zuen emakume gisa. Mirenek, aldiz, honako hau azaltzen du:

«Gatazka honetan, emakumeak biktima sekundarioak izan dira, ez direlako beraiek izan hildakoak, baizik eta senarra, semea... Biktima ugari, gizonak ere agertzen diren arren, bozeramaile eta beren minaren aitortzaren erreibindikatzailerik bihurtu dira. Uste dut horrek emakumeetako asko aldatu dituela: **gizonaren atzean dauden pertsonen rola aldatu dute**».

Esterrek, Guatemalako kasuaren eta Euskal Herrikoaren artean distantzia eta desberdintasun handiak egon arren, antzeko zerbait dio eta emakume batzuen esnaeraz hitz egiten du:

«Emakume asko politika partidistan borrokatzen ari dira eta uste dut hori gatazkan bizitakoaren ondorioz etorri zela. Une horretan, emakumea azkenik esnatu zen eta baliotsua dela eta parte har dezakeela konturatu zen. Familia-mailan ere, emakumea gailentzen eta bere eskubideak defendatzeko borrokatzen hasi zen».

# Zerbitzariak

Konplexua da emakumeen rolek gatazka-testuinguruetan izaten duten aldaketaz hitz egitea; izan ere, azterketa honetan ikusten den bezala, emakumeak beste espazio batzuetara irteten dira eta gizonentzat bakarrik erreserbatuta dauden esperientzia batzuez jabetzen dira. Hala ere, sistema patriarkala beste indarkeria batzuek jotzen duten melodiaren doinuan mugitzen da. Eta horrek esan nahi du emakumeei esleitutako roletako asko larriagotu eta areagotu besterik ez direla egiten gatazka-testuinguruetan.

Adibidez, emakumeentzat erreserbatutako zereginetako bat ama izatea bada, gatazka-testuinguruan hori areagotu egiten da. Bat-batean, aldi berean ama eta aita bihurtzen dira. Edo emakumeei ama izateko gaitasuna lapurtzen diete. Edo behartu egiten dituzte. Eta amak izan behar dute. Keinu bakoitzean eta ekintza bakoitzean, emakumeak autonomiara eta indarkeriatik aske izatera pixka bat gehiago hurbiltzen dira, baina, egitura patriarkalaren ondorioz, orkatiletan pisuak loturik edukita urpean ibiltzea bezala da.

Horregatik, gatazka-testuinguruetan ere, emakumeak ez dira zerbitzari-roletik libratzen. Guatemalako gerran, badaude destakamentu militarrek non gizonak emakumeak bahitzen baitituzte destakamentua garbitu eta janaria presta dezaten. Arantxa Urretabizkaia idazle bakezaleak honako hau kontatzen du elkarrizketan:

"[...] ETAn emakumeen zereginei buruz [...] salatzen da, adibidez, gehiago hasieran, bada komando bat etxe batean bazegoen, ahalegintzen zirela han emakume bat egon zedin, baina ez sexu zerbitzuetarako, baizik eta bazkaria prestatzeko... Hori bizi izan zuen batek kontatzen zidan behin: 'zenbat patata tortilla ez dudan egin nik'.

Gizon horiek zeuden heziak modu hortan. Beti zeukaten ama bat haien zerbitzura eta funtzionatu ahal izateko, behar zuten amaren irudia hartuko zuen emakume bat".



# Nire erabakia da

«Nik zerbait egin behar nuela sentitzen nuen, giza eskubideen aldeko mugimendu bat nahi nuen. Erabaki pertsonala izan zen».

«Niretzat konpromiso bat da, daukadan misio bat eta nire konbentzimenduak ez beste inork behartuta garatzeko aukera izan dut».

«Nik uste dut erabaki erabat pertsonalak izan zirela».

«Nik gustatzen zitzaidalako eta bidegabekeriarik nahi ez nuelako aukeratu nuen. Orduan, edonon nengoela ere, nik kontra egiten nuen».

“Nire klak bat izan zen: erabaki nuen ezetz, bukatu zela ezikusiarrena egitea eta inplikatu egin behar nuela”

la duda-mugarik gabe. Elkarrizketatutako pertsonetatik gazteenak bakarrik izan ditu bere kezka, erabakiak eta militantzia-espazioak beste pertsona eta esperientzia batzuek markatuta egon ote direnari buruzko zalantzak. Gainerakoek argi eduki dute, bai emakume guatemalarrak bai euskaldunek, bakezaleek, politikariek, irakasleek, aktibistek, artistek... Erabakitaz gatazkan izan duten zereginak eta hartu dituzten erabakiak beraienak bakarrik izan dira.

# Beldurrez, baina egin egiten da

Emakume horiek lotzen dituen beste elementu bat da gauzak beldurrez egin dituztela. Edo hobeto esanda: gauzak beldurra gorabehera egin dituztela. Arantxa beldur da indarkeria publikoki salatzerara doanean. Eta egin egiten du. Susana bere familiagatik beldur da. Eta familia harengatik. Eta egin egiten du. Bibiana kale horretara joateko beldur da. Eta egin egiten du. Ester aita galtzen duenean beldur da, ez daki nola biziko diren. Eta egin egiten du.

Are gehiago, beldurra eta beldurra hausteko modua zenbaitetan agertzen da elkarrizketetan:

“Ausartzeko. Ez zaie oso merke aterako, baina ausartzen ez badira,  
ez dugu ezer lortuko”

«Gatazka pairatu zuten emakumeetako batzuegan oraindik beldurrik,  
ikararik eta ziurgabetasunik badago, bota dezatela. Aurrera  
egin dezatela, lortu duten eta hor beren ongizaterako eta beren  
famiaren ongizaterako ekinean jarraitzen duten beste emakume  
batzuk ikus ditzatela. Ikus dezatela, ahal dela ikus dezatela.  
Beste pertsona batzuk bila ditzatela. Horrela aurkituko dituzte  
hobetzeko balioa eta indarra».

# Nola eraikitzen da etorkizuna?

Ziurrenik, kontu horrek erantzun baino galdera gehiago dakartza berekin. Gatazkaren ondorengo etapa batez hitz egin daiteke elkarrizketatutako emakumeek, guatemalarrak zein euskaldunak izan, gatazka amaitu ez dela sentitzen badute? Nola hitz egin gatazkaren ondorengo etapez indarkeriak eragindako zauriek eta ondorioek bizirik badiraute? Senti al daitezke emakumeak gatazkaren ondorengo etapa batean bakea haiengana inoiz heltzen ez bada?

Elkarrizketatutako emakumeek ez dute beren burua letra larriz idatzitako historia horretan islatuta ikusten, ezta bake handian ere, ikuskera hegemonikoa nagusiki maskulinoa baita. Ez daude ezkututzen dituen historiaren barruan. Eta, hala eta guztiz ere, badira protagonistak. Izan ere, emakumeak jada ari dira zauriak sendatzen eta errealtatea eraldatzen, kontakizun berriak idazten eta bakeari ekarpena egiten.

## Emakumeak eraikitzen ari diren bakea

Topaketa txikiz osatutako bakea da. Zintzoa. Jendeak aintzatespenaren eta minaren onarpenaren eskuzabaltasunarekin begietara elkar begiratzea dakarren bakea.

“Konturatzen zara zure mina eta bere mina berdina direla. Mina dela. Eta gertatu dena gertatuta, liberazioa da. [...] elkartu eta begietara begiratu”  
(EH)

Arlo komunitarioan introspektiboa den bakea da, trauma adierazten delako eta beste emakume batzuek berotasunez hartu eta biktima-roletik irtenarazten dituen begirada bat itzultzen dutelako. Bizirik dirauten pertsona kalteberen bake bat. Eta isiltasunak hausten dituen bake bat. Entzuten duen bake bat.

Memoria duen bake bat da. Gertatutakoa gordetzen duena eta kontakizunari ahots askoz, oraindik hitz egiten ez dutenena barne, osatutako koloreak dakarzkiona.

«Gatazkaz hitz egiteko aukera izan dudan aldi eskasetan, emakume bat nirekin horretaz hitz egiteaz arduratu delako izan da» (EH).

«Guk sendatzeko eta norbera zaintzeko prozesu hori lantzen dugu. Ikusi dugu emakumeak arlo pertsonaletik eraldatu direla eta hori beren familiekin errepikatzen doazela. Egoera horiek bakea lortzen laguntzen ari dira» (GM).

«Haiei entzutea. Elkar entzutea» (EH).

«Badaude hitz egin ez duten emakume asko eta, kontatuko banizu, ez genuke denbora nahikorik edukiko. Haiek asko sufritu dute eta abandonatuta geratu zirelako sentsazioa daukate» (GM).

“[Emakumeek] errelatora ekarriko dute zaintza, alde batetik, sufrimendua, eta gero egon diren esperientzia guzti horiek, bestetik” (EH)

«Memoria poliedriko bat behar da, ikuspuntu ugari biltzen dituen» (EH).

«Herri zauritu baten historia gordetzea eta gure historia bizi edo ezagutu ez duten pertsonen bihotza sentsibilizatzea» (GM).

Aurreko jakintzak eta haien transferentzia aintzatesten dituen eta horietaz fidatzen den bake bat da.

“Gogoan daukat, behin, Dora Russell andrearen memoriak irakurtzen, kontatzen zuen ze gauzak asmatu zituzten eta gero nola ez zizkiguten kontatu, guk asmatu behar izan genituen berriz. Eta uste genuen asmatzen ari ginela! Ez dut nahi hori gertatzea orain, ezin da galdu” (EH).

«Guk ezagutza handia daukagu, gure arbasoek ezagutza handia utzi digute eta lan hori identifikatu eta erreibindikatu behar dugu» (GM).

Egunerokotasunean eraldaketa bilatzen duen bake bat da.

“Nire rola egunerokotasunean egotea da. Ez dut ikusten rol potente, handi, izugarri bat, margoztatzekoa. Egunerokotasunean hori guztia bermatzea, nahiz eta txikia izan. Egunerokotasun hurbilenean: lankideekin, koadrilan, familian... Egiten dudan guztian hori sartzea” (EH).

Sistema-aldaketa bat eskatzen duen bake bat da. Errotiko aldaketa bat. Justizia sozialean eta berdintasunean oinarritutako aldaketa bat.

«Egiturazko aldaketa bat behar dugu, sistema da ondo ez dabilena eta komunitateen beharrei erantzuten ez diena eta beti liskarretan harrapatuta gauzkate. Ez dago giza eskubideekiko errespeturik, ez dago gure lurraldeekiko errespeturik, ez dago naturarekiko errespeturik» (GM).

Emakumeen zeregina eta lidergoa errebindikatzen dituen bake bat da.  
Politika feministez osatutako bake bat.

«Emakumeak boterera heltzea emakumeen aldeko legeak eta politikak bultzatzeko. Landako emakumeek eta hiriko emakumeek planteamenduak egin ahal izatea, landako emakumeek beste modu batean sufritzen dutelako» (GM).

“Politika feministak, ez femeninoak. Sistemak behar dituen egoera, instrumentu edo instituzio biolentoak feminista bilakatzea” (EH)

«Estatuaren aldetik ez dago konpromisorik, ez dago borondate politikorik eta, hala ere, emakumeek kontra egiten eta beren lidergoa indartzen jarraitzen dute, elkar babestuz, kudeatuz eta babes-zirkuluak sortuz» (GM).

Emakumeak eraikitzen ari diren etorkizuna, beraz, konponketan eta ahotsen altxamenduan oinarrituta dago. Topaketa txikien eta egunerokotasunaren eraldaketaren etorkizuna da. Proposamen berrien, emakumeen lidergoen eta politika feministen eskakizunaren etorkizuna. Eta, jakina, emakumeen bizitzaren konplexutasuna eta historiak ikusgai egingo diren etorkizuna.

Azterketa honen lehen zatian aipatu den Gerda Lernerren aipua (2017) gogoraraziko dugu: «*Borroken eta lorpenen geure historiaz daukagun ezagutza-falta emakumeok mendearen mantentzeko modu nagusietako bat izan da*». Eta bakea eta etorkizuna eraikitzeko ezinbestekoa da historia horiek guztiak aintzatestea, emakumeak beraienez pentsatzen den horretatik irteten direnean ere. Denentzako aintzatespenaren etorkizun bat.

# Zer esan nahi diezu antzeko egoeretan dauden beste emakume batzuei?

«Elkarren bila aritu daitezela, elkar aurkitu dezatela. Gure seme-alabei duintasunezko eta errespetuzko balioak transmiti diezazkietela. Eta inguruan dauden gizonei esango nieke, gureganako errespetua mantentzeko gai ez badira, agian haiengandik urrundu eta bide propioak urratu beharra dagoela» (EH).

«Sufritu dugun guztia gorabehera, hemen gaude eta bizirik gaude. Eta laguntza psikosozialeko espazioak bilatu ditzagula biktimak izatetik bizirik dirauten emakumeak izatera pasatzeko» (GM).

«Hitz egin horretaz, partekatu, bilatu zu ulertzea lor dezakeen norbait eta, batez ere, bilatu beste emakume batzuk, gutxiago kostatzen zaigu mina partekatzea» (EH).

«Emakumeak garen aldetik, bizitza babesteko daukagun adorea baloratu behar dugu. [...] Uste dut hori baloratu beharra dagoela, azkenean mundu guztian eta inguruabar horien guztien erdian gu bizitzaren funtsezko parte izatea dakarrelako» (GM).

“Begirada zabaldu. Horrek egiten gaitu pertsona askeak:  
pazientzia, maitasuna eta begirada zabala” (EH)

«Ai, bueno, ez dezatela etsi, denak bere denbora daukalako. [...] Gutako bakoitzak borrokatu behar du eta alderdi ideologikoan, politikoan, akademikoan eta abar prestatu. Biziki sustatzea eta adieraztea emakumeak gai garela eta luzaroan frogatu dugula hori. Besteei gu garaitzen ez uztea, geure espazioak aurkitzen goaz»  
(GM).



# Ondorioak

Badaude desberdintasunak denboretan. Erritmoetan. Izendatzeko moduan. Errealitateari begiratzeko prismetan. Emakume guatemalarrak bizirik dirauten emakumeez hitz egiten dute, ez biktimez. Trauma aipatzen dute eta energia handia jartzen dute laguntzan. Emakumeen aniztasunari buruzko kontzientzia handiagoa daukate: landakoak, indigenak, hirikoak. Eta eliza eta herrien askotariko kosmobisioak ere presenteago daude.

Emakume euskaldunen artean isilune gehiago daude. Esaten ez diren gauzak. Botatzen ez diren hitzak. Airean bukatu gabe geratzen diren esaldiak. Honako hau esango balute bezala: ulertzen didazu. Badago mina, emakume guatemalarren artean bezala, baina erakusteko lotsa handiagoa ere badago. Egiatan horretaz hitz egin ezingo balitz bezala edo hitz egiteko baimenik ez balego bezala. Pentsamenduak lehenik galbahetik pasatuko balira bezala.

Batzuk desberdintasun kulturalak izango dira. Iparreko eta hegoko begiradak. Beste batzuk, ziur asko, gatazka bakoitzaren berezko izaerarekin erlazionatuagoak egongo dira. Dena den, erraza da haien kontakizunak txirikordatzen direla ikustea. Elkarrekin norberaren esperientzia partikularraren atzean dagoen beste gauza batez hitz egiten dutela. Eta hor deskubritzen ditugu: bizirik ateratzen diren emakumeak, jakintzen zaintzaileak, amak, bizitzaren sostenguak, hornitzaileak, ekintzaileak, zerbitzariak, borrokalariak, atzemaileak, politikariak, bakezaleak, poliedrikoak, konplexuak eta gorputza sistema patriarkalak zeharkatuta daukatenak.

Errealitatea ez dator bat arketipo garbiekin. Ez dago figura absoluturik, baizik eta aurkakoa zaien ingurune batekin etengabe komunikatzen ari den gorputz berean, emakume berean antolatzen eta hezurmamitzen diren sentipenak, rolak eta ekintzak. Eta gorputz hori, emakume hori, aldi berean kolektiboa da. Geu gara.

Parte-hartzaile guztiek neke-begirada daukate. Oraina eta etorkizuna ere baden iraganaz hitz egiteak sakona dirudi. Baina askatzailea ere bai. Begiradetan nekea ez ezik distira ere badago. Lurrari ondo lotzen duten sustrai sakonak eta beti eguzki-argiaren bila dauden adar altuak eta arinak dauzkan zuhaitz baten modukoak dira. Datorrenari begiratzen dioten emakumeak dira, aldaketa, konponketa eta askatasunezko etorkizun bat hezurmamitzeko gorputza jarri nahi dutenak.



# Bibliografía

PHOOLAN DEVI eta MARIE THÉRÈSE CUNY (1996): *La Reina de los Bandidos*. Círculo de Lectores argitaletxea. Valencia, 344, 08009 Bartzelona.

---

IKER ZIRION LANDALUZE (2012): *Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género*.

---

CAROLINA JIMÉNEZ SÁNCHEZ (2015): *Las mujeres en los conflictos armados: conflicto, proceso de paz y posconflicto*.

---

GUADALUPE CAVERO MARTÍNEZ (2021). *Las mujeres en los conflictos y postconflictos armados: la resolución 1325 de la ONU y su vigencia hoy*. Hemen eskuragarri: <https://www.inmujeres.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/documentos/DE1865.pdf>

---

IRANTZU MENDIA AZKUE (2008). *Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra*. Hegoa. Hemen eskuragarri: <https://ojs.ehu.eus/index.php/hegoa/article/download/10603/9843>

---

Coproducción (2020). *El libro del feminismo*. Akal producciones.

---

AMNISTÍA INTERNACIONAL (2015). *Al cabo de 70 años, las “mujeres de solaz” hablan para que la verdad no muera* artikulua. Hemen eskuragarri: <https://www.amnesty.org/es/latest/campaigns/2015/09/70-years-on-comfort-women-speak-out-so-the-truth-wont-die/>

---

MARÍA VILLELLAS ARIÑO. *Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos. La participación de las mujeres en los procesos de paz*. Hemen eskuragarri: [https://www.academia.edu/1482477/HALLAR\\_NUEVAS\\_PALABRAS\\_CREAR\\_NUEVOS\\_M%C3%89TODOS\\_LA\\_PARTICIPACI%C3%93N\\_DE\\_LAS\\_MUJERES\\_EN\\_LOS\\_PROCESOS\\_DE\\_PA](https://www.academia.edu/1482477/HALLAR_NUEVAS_PALABRAS_CREAR_NUEVOS_M%C3%89TODOS_LA_PARTICIPACI%C3%93N_DE_LAS_MUJERES_EN_LOS_PROCESOS_DE_PA)

---

JULE GOIKOETXEA (2015): *Bakea ez da existitzen, feminismoa bai*. UEUren ‘Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean’ udako ikastaroan emandako hitzaldia

---

BEGOÑA ZABALA GONZÁLEZ (2008). *Movimiento de Mujeres, Mujeres en Movimiento*. Txalaparta, Iruñea-Pamplona.

---

ANDREA GARCÍA GONZÁLEZ (2023). *Calla y Olvida. Violencias, Conflicto Vasco y Escucha Vulnerable como Propuesta Feminista*. Katakarak, Iruñea-Pamplona.

---

IBAI ATUTXA ORDEÑANA eta IRATXE RETOLAZA GUTIERREZ (2021). *Indarkeriak Dantzatzera Behartzen Gaituzte. Gatazka Armatuaren Irakurketa Feministak*. UEU, Donostia

---

DIES DE TRANSICIÓN. -08. - *La fuga de Segovia* bideoa. Hemen eskuragarri: [https://www.youtube.com/watch?v=RCelc8b1w2I&ab\\_channel=Documentals-CAE.H.F.](https://www.youtube.com/watch?v=RCelc8b1w2I&ab_channel=Documentals-CAE.H.F.)

---

## **GUATEMALAKO FITXARAKO:**

[https://www.iri.edu.ar/publicaciones\\_iri/IRI%20COMPLETO%20-%20Publicaciones-V05/Publicaciones/T5/T506.html](https://www.iri.edu.ar/publicaciones_iri/IRI%20COMPLETO%20-%20Publicaciones-V05/Publicaciones/T5/T506.html)

---

El conflicto étnico en Guatemala. Andrea Althoff. Papeles, 62. zk., 1997.

---

Guatemala, Memoria del Silencio. Informe de la Comisión para el Esclarecimiento Histórico. 1999ko ekaina. (<https://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/guatemala-memoria-silencio/guatemala-memoria-del-silencio.pdf>)

---

<https://memoriavirtualguatemala.org/>

---

<https://news.un.org/es/story/2018/10/1444072>

---

<https://coordinadoraongd.org/2020/09/los-papeles-secretos-del-genocidio-en-guatemala-ayudanos-para-que-la-verdad-salga-a-la-luz/>

---

<https://www.usip.org/publications/1997/02/truth-commission-guatemala>

---

<https://www.cicig.org/history//index.php?page=guatemala-sp>

---

[http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S2027-51372021000100323](http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S2027-51372021000100323)

---

## **EUSKAL HERRIKO FITXARAKO:**

[https://elpais.com/politica/2018/05/02/actualidad/1525252299\\_953564.html](https://elpais.com/politica/2018/05/02/actualidad/1525252299_953564.html)

---

<http://www.pensamientocritico.org/raulop0415.pdf>

---

<https://es.slideshare.net/ARGITUZorg/el-largo-camino-hacia-una-politica-publica-de-victimas-incluyente-y-respetuosa-con-todas-las-victimas>

---

<https://www.euskalmemoria.eus/>

---

[https://elpais.com/politica/2011/10/19/actualidad/1319056094\\_153776.html](https://elpais.com/politica/2011/10/19/actualidad/1319056094_153776.html)

---

[https://www.eldiario.es/navarra/informes-instituto-vasco-criminologia-cifran-1-068-casos-tortura-navarra-1960\\_1\\_9852911.html](https://www.eldiario.es/navarra/informes-instituto-vasco-criminologia-cifran-1-068-casos-tortura-navarra-1960_1_9852911.html)

---

<https://www.europapress.es/nacional/noticia-gobierno-vasco-censa-4113-casos-torturas-malos-tratos-euskadi-1960-2014-afectan-3417-personas-20171218183802.html>

---

ETA, 1958-2008, medio siglo de historia. Iker Casanova. Txalaparta. 2007

---

<https://www.lavanguardia.com/politica/20110110/54100241412/eta-anuncia-un-alto-el-fuego-permanente-y-verificable-pero-no-renuncia-a-las-armas.html>

---

[https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh\\_paz.nsf/voWebContenidosId/C660A128A15D8E91C1257C9B0046C000/\\$file/Declaraci%C3%B3n%20de%20Aiete.pdf](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh_paz.nsf/voWebContenidosId/C660A128A15D8E91C1257C9B0046C000/$file/Declaraci%C3%B3n%20de%20Aiete.pdf)

---

<https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua849.pdf>

---

<https://www.berria.eus/albisteak/133568/etaren-arma-guztiak-frantziako-polizien-esku-daude.htm>

---

[https://www.rtve.es/contenidos/documentos/ETA\\_declaracion\\_final.pdf](https://www.rtve.es/contenidos/documentos/ETA_declaracion_final.pdf)

---

<http://www.derechoshumanos.net/memoriahistorica/1946-Resolucion-ONU.htm>

---

<https://www.exteriores.gob.es/es/PoliticaExterior/Paginas/EspanaNacionesUnidas.aspx>

---

<https://globalpoliticsandlaw.com/blog/2020/08/19/entrada-espana-onu/>

---

[https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/5926/1/PYM\\_05\\_12.pdf](https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/5926/1/PYM_05_12.pdf)

---

<https://buleria.unileon.es/bitstream/handle/10612/853/Javi.pdf?sequence=1>

---

<https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/2021/03/25/javier-primera-victima-conflicto-confundido-2154391.html>

---

[https://www.elmundo.es/eta/historia/primeras\\_victimas.html](https://www.elmundo.es/eta/historia/primeras_victimas.html)

---

[https://www.eldiario.es/sociedad/carrero-blanco-marino-filonazi-antisemita-pudo-liderar-franquismo-franco\\_130\\_9065742.html](https://www.eldiario.es/sociedad/carrero-blanco-marino-filonazi-antisemita-pudo-liderar-franquismo-franco_130_9065742.html)

---

<https://www.youtube.com/watch?v=e7YE2rDinFw>

---

<https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/areas/archivos/mc/archivos/cdmh/exposiciones-y-actividades/fragmentos-de-memoria/proceso-burgos.html>

---

<https://elpais.com/especiales/2018/franco-ha-muerto/>

---

[https://www.elplural.com/oxigena2/curiosidades-efemerides/27-septiembre-ultimos-fusilados-franquismo\\_275397102](https://www.elplural.com/oxigena2/curiosidades-efemerides/27-septiembre-ultimos-fusilados-franquismo_275397102)

---

<https://cle.ens-lyon.fr/espanol/civilisation/histoire-espagne/monarchie-et-formations-politiques/cronologia-de-la-transicion>

---

Felipe González y el caso de los GAL: una relectura de las políticas antiterroristas de los gobiernos del PSOE en España entre 1982 y 1996. Guiliano Tardivo eta Eduardo Díaz. Espacio Abierto, 2020.

---

<https://www.rtve.es/noticias/20111017/cronologias-treguas-decretadas-banda-eta/351867.shtml>

---

<https://www.europapress.es/nacional/noticia-dispersion-etarras-mas-25-anos-estrategia-avalada-jueces-20150623203145.html>

---

[https://cronicavasca.elespanol.com/sociedad/gregorio-ordonez-asesinato-cambio-estrategia-eta-vida-politica-en-euskadi\\_571776\\_102.html](https://cronicavasca.elespanol.com/sociedad/gregorio-ordonez-asesinato-cambio-estrategia-eta-vida-politica-en-euskadi_571776_102.html)

---

<https://www.txalaparta.eus/es/noticias/acuerdo-lizarragarazi-1998-inaki-egana>

---

[https://elpais.com/elpais/2003/03/17/actualidad/1047892620\\_850215.html](https://elpais.com/elpais/2003/03/17/actualidad/1047892620_850215.html)

---

[https://www.eldiario.es/euskadi/veinte-anos-clausura-unico-periodico-euskera-presidente-creo-sido-error-cerrar-egunkaria\\_1\\_9968746.html](https://www.eldiario.es/euskadi/veinte-anos-clausura-unico-periodico-euskera-presidente-creo-sido-error-cerrar-egunkaria_1_9968746.html)

---

<https://www.publico.es/politica/egin-aznar-cerraba-diarios-20-anos-operacion-egin.html>

---

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/4289180/arnaldo-otegi-ezker-abertzalearen-esperantza-handia/>

---



baketik



borborka



LANKIDETZARAKO ETA  
ELKARTASUNERAKO  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN Y  
SOLIDARIDAD



Emakumeen Parte-Hartzea Nerekoen Erakundeak, Euzko Lege Gubernaria